


ttipi ttapa

2004ko maiatzaren 6a • XXIV. urtea



Drogak aztertzen Toki-Ona ikastetxean 03

Berako Toki-Ona institutuko Guraso Elkartek eskatuta, drogari buruzko informazioa ematen ari da azken hiru ikasturteotan As-kagintza erakundea.



Iratxe Kontsumitzaile Bulegoa Bortzirietan 04

Baztan, Bertizarana eta Leitzan bezalaxe, hemendik aitzinera Bortzirietako kontsumitzaileek ere Iratxe Elkartearen babes eta aholkua jasoko dute.

28 Herri kirolaren omenaldia «Kaxot» igantziarrari



MUEBLES A METS

Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERATik da**

Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537


Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak



**Eskaintza
logeletan
%30eko
deskontua**



**ENDANEA
HAZTEGIA**

Bisita ezazu
leku berri hau.
Gustatuko
zaizu!

Hondarribiako ENDANEA LEKUZ ALDATU DA

Orain N-1 errepidearen ondoan,
Ospitale komarkaleko
bidegurutzean aurkituko duzu,
(Jaizubia Elkartetxearen
atzeko aldean).

Mintegia askoz handiagoa
aukera gehiagorekin.

**ASTE HONETAKO
ESKAITZA BEREZIA**

*Alegriak eta
begoniak
0,30 eurotan*



Aparkaleku handia, 121 autoendako

Udaberriko ordutegia:

Astelehenetik larunbatara
9:00etatik 20:00etara
Jai egunetan 9:00-13:30

Helbide berria:

**Jaizubia auzoa, 40
HONDARRIBIA**

Tfnoa: 943 641710

www.endanea.com



DATUAK...

- Berako Toki-Ona Institutuko Guraso Elkarteak antolatuta, drogari buruzko ekimen ezberdinak egin dira azken hiru ikasturteetan.
- Askagintza erakundeko Txus Congil, Leire Zumeta eta Aiora Perez de San Roman izan dira, ikasle, irakasle eta gurasoekin bildu direnak, gai honen inguruko informazioa emateko.
- Ikasleen partehartzea segurtatzeko ikas orduetan egin dira saioak. 140 ikasleren artean inkesta egin dute drogaren eragina aztertzeko.

Txus CONGIL *Askagintza erakundea*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Drogari buruz informazio asko dute gazteek baina gaizki egituratua»

Aitor AROTZENA

Zein izan da ikasleekin eta gurasoekin egin duzuen lana?

Hirugarren ikasturtea da Toki-Ona Guraso Elkartearekin elkarrekin lan egingen dugula. Aurten gurasoekin ez ezik, irakasle eta ikasleekin ere lan egiteko aukera izan dugu. Drogomenpekotasunaren prebentziorako eta osasun heziketarako programa zehatza egin dugu, bai formazioa irakasleekin, bai drogaren eragina gurasoekin aztertuz, baita ikasleekin ere, drogak nolakoak diren, zer eragin baikor eta ezkor duten eta honen aurrean gaztea bera bere bizitzaren protagonista bihurtzeko. Droga kontsumitzen badute, arrisku guttiago eta ardura gehiago hartzeko aholkuak eskaini dizkiegu.

Ikasleen artean ikerketa bat ere egin duzue. Zein izan dira emaitzak?

Gure lanean hasi baino lehen ikasleek drogarekiko duten pertzepzioa eta beraien ezagupenak nolakoak diren ikastea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Informazioa asko daukate, baina gaizki egituratua: mito, estereotipo eta estigma asko izaten dituzte eta

«Hemengo gazteak oso sanoak direla azpimarratuko genuke, ez dira hain urbanitak eta kontsumo datuak ez dira bertze lekuetan bezain kezagarriak»

hori ez da komeni. Edari alkoholikoen estimulazioa bilatzen dute, baina ez dute ondoko fase depresiboa ezagutzen, ohitura edo tolerantziaren kontzeptua ez dute ezagutzen edo sortzen dituen bertze patologia eta gaitxotasunak. 140 ikaslek bete dute galdera-sorta eta ondorioak ez dira harriarriak. Hemengo gazteak oso sanoak direla azpimarratuko genuke, ez dira hain urbanitak eta kontsumo datuak ez dira bertze lekuetan bezain kezagarriak, horrek ez du esan nahi kontsumorik ez dagoenik. Gazteenek zerbait entzun edo ikusi dute, baina ez daude kontsumo inguruan. 13-14 urterekin curiosidadea sortzen da eta gehiago hitzegiten dute, egin baino. Lehenengo kontsumoak adin horretan hasten dira, alkohola, tabakoa... Dena den inguru honetan tabakoa-

ren eragina ez da beste lekuetan bezain handia, horrek harritu gaitu. Gero sortzen da kanabisa, batez ere haxisa eta eskualde honetan, landaretara ohituak daudenez, marihuana. Arriskuaren pertzeptzio gutti daukela ikusten da.

Inguruko bertze ikastetxetan horrelako lanik egitea pentsatu duzue?

Guk beti eskariaren arabera lan egingen dugu eta ez bagaituzte deitzen ez gara inora joaten. Eskualde honetan ez daukagu Askagintzako talderik eta oso eskualde garrantzitsua da guretzat. Bortzirietako Mankomunitateak gazteekin zerbait egiteko eskatu digu eta prest gaude, eta Berako Udalak ere zerbait egiteko gogoia du. Eskualde honetan interesa sortzen ari da, Guraso Elkarteak izan dira gure enbajadore onenak eta horren bidez kontaktu gehiago lortu ditugu. Gure filosofia ez da droga satanizatzea, ezta banalizatzea ere. Gu ez gara etortzen drogak txarrak direla esatera, drogak hor daudela diogu eta pertsona bakoitza drogarekiko harremanean sujeto librea izan behar du.



ARTXIBOKOA

Mikel Bezunartea da gure eskualdeko herrietan ireki diren Iratxe Kontsumitzaile Elkartearen bulegoetan informazioa eta aholkua eskaintzen duen teknikaria. Argazkian, Leitzako bulegoan ageri da.

IRATXE KONTSUMITZAILE ELKARTEA BORTZIRIETAN ERE

Etxebizitzari buruzko aferak dira eskualdeko kontsumitzaileen kezka

Urteak daramazki Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak lanean Nafarroan. Iruñean duela 25 urte inguru sortu zen eta zerbitzua Nafarroa osora hedatzeko xedearekin herriz herri udalei eta mankomunitateei beren lana eskaini zieten. Duela hamar bat urte Baztanen ireki zuten bulegoa, 2000. urtean Leitzara etorri ziren eta joan den urtean Bertizaranara. Orain, Bortzirietan ere kontsumitzaileei informazioa eskainiko diete hilabeteetan bitan, batean Beran eta bertzean Lesakan. Orain arte, gure eskualdean egindako lanak erakusten duenez, etxebizitzaren inguruko aferak dira kontsumitzaileei kezka gehien sortzen dietenak, egindako kontsultetatik hirutik bat baino gehiago horri buruz izan baitira.

Joseba OLAGARAI

Horixe izan da Mikel Bezunartea, Iratxe Kontsumitzaile Elkarteko aholkari juridikoak aipatu diguna eta joan den urtean Baztan, Leitzan eta Bertizaran eskainitako zerbitzuei buruz egindako txostenean ageri den datua. Hiru bulego horietan 389 kon-

tsulta egin ziren guzira eta horietatik 132 (hirutik bat baino gehiago) etxebizitzaren ingurukoak izan ziren. «*Etxebizitzaren inguruan* –dio Mikel Bezunartea– *erreklamazio aunitz egiten dira: etxebizitza erosi, saldu, etxebizitzako zerbitzuak, aseguruak... Aseguruak, orohar, ere bai. Autoen ase-*

guruak, pentsio planak, jubilazio planak, banku eta aurrezki kutxetako gauzekin ere etortzen da jendea, erosketak orohar. Erosketa aipatuta, erosketa bereziak ere baditugu, etxez etxeko salmenta, multipropiedad delakoa, etabar... Gero garantiak ditugu, erreklamazio aunitz zerbait erosi eta garantian dagoenean hondatzen delako izaten dira. Edo garantian dagoenean ez dutelako konpondu nahi edo ez dutelako behar bezala konpontzen. Gero bidaiak, denetarik... azken finean guk kontsumoaren arloan egiten dugu lan eta kontsumoa gureta-ko erosten dugun guzira da, zerbitzua nola gauza izanik ere».

Iratxeko aholkulariak dioenez, kontsumoaren inguruko zehaztapenak, aholkuak edo laguntza juridiko eske joaten da jendea bulegoetara: «*Elkartea da eta sozioekin funtzionatzen dugu. Iruñean duela 25 urte inguru horrela hasi ginen eta horrela segi-*

tzen dugu. Gure zerbitzua Nafarroa osora zabaldu nahi izan dugu eta inguru honetako udalekin hitzarmenak sinatu ditugu horretarako, bertako bizilagunek zerbitzu hori doan izan dezaten. Kontsumitzaileen bulegoa izanik, kontsumoaren inguruko zehaztapen guziak nola laguntza juridikoa eskaintzen diogu jendeari. Orduan jendea batzuetan etortzen da informazio eske, bertze batzuetan arazo bat duelarik laguntza behar duelako etortzen da».

MALERREKARA ERE ZABALTZEKO ASMOA

Iratxe elkarteak aitzinetik zerbitzua Baztanen, Leitza, Bertizaran... eskaintzen zuen. Orain Bortziritan ere hasiak direla kontuan hartuz, Malerreka izanen da zerbitzu hori gabe eskualdean dagoen inguru bakarra, baina itxaropentsu ageri da Bezunartea: «Gure kezka beti izan da zenbait tokitan, herri txikiak baldin badira, zerbitzurik gabe gelditzen direla. Orduak, Bortziritan bezala, Malerrekan ere eskatu dugu zerbitzua mankomunitatea. Egun Narbartera joaten gara, Bertizaranara, eta gure asmoa da, bertze zerbitzuak Mankomunitatean ditzutenez, hau ere Mankomunitatean sartzea. Bertzenaz, Doneztebe eta inguruko herrietako jendeak ez dauka zerbitzurik eta nahitaez edo gure elkarteko bazkidea izan behar du edo bide pribatutik jo behar du». Kontsumitzaileek zerbitzua erabili eta eskertzen dutela argi dago joan den urteko datuak begiratuta. Baztanera astero joatea aztertzen ari dira, eskaria ikusita.

IRATXE ELKARTEAREN 2003KO BALANTZEA

Joan den urtean eskualdean zituen hiru bulegoetan eskaintako zerbitzuak aztertzerakoan, kontuan hartu behar da Bertizaranako datuak bigarren urte erdiari bakarrik dagozkiola, baita herri bakoitzak duen biztanle kopurua ere. Dena den, etxebizitzaren salerosketa edo errentamenduari dagozkion kontsultak izan dira gehien aztertu direnak.

- Etxebizitza berri eta erabiliaren erosketari buruz aholkua eman da bulegoetan, baita herri edo baserri inguruetako etxeen errentarena. Kontratuak gainbegiratu, zalantzak argitu eta, arazoak izan direnean bitartekari lana egin du Iratxek. Gainera, bizilagunek era, bereziki jabe-komunitateko presidentek, aunitan aholkularitza behar dute komunitate funtzionamenduko arauari buruz.

- Aseguruaren kontratua, primak, indemnizazioak, koberturak eta aseguruarekin lotutako bertze gaiek kontsulta eta erreklamazio ugari eragiten dituzte. Bizitza aseguruak edo bidaietakoak ere kontsultatzen dira.

- Banku eta aurrezki kutxei dagokienez, etxebizitza mailegari buruz informatu eta erreklamazioak jasotzen dira bulegoetan (kontratuen baldintzak, bo-

robitzeak...), kontsumo maileguak, komisioak, kredito-debito txartelen erabilpena eta, orokorrean, produktu finantziero ezberdinei buruz.

- Komertzioan, orokorrean, produktuen erosketarekin lotutako guzia, prezioak, fakturak, itzultzeak eta salmenta berexiak (urrunera egindakoa, komertzio elektronikoa, multijabetza...).

- Administrazioan, zergak, zerbitzu publikoak eta administrazio publikoarekin lotutako bertze gaiei buruz galdegitzen da bulegoetan.

- Etxez etxeko zerbitzuak eta tailerrak: zurgin, igeltsero, iturgin, margolari, etxeko elektragailuen konponketa, auto tailerrak...

- Bidaiak, bidaiari eta merkantzien garraioa: kontratua ez betetzea, atzerapenak, ekipaiaren galtzea, kalte pertsonal eta materialak...

- Bertzeak: Enpresa ezberdinek eskaintako zerbitzuak (telefonoa, gasa, argia...). Arkitektu, abokatu, notario eta bertze gai puntualetan eskaintako zerbitzuak.

Honetaz gain, Iratxe inguruko komunikabieetan aritzen da eta ikastaro eta solasaldiak eskaintzen ditu

IRATXE KONTSULTAK 2003	BAZTAN	BERTIZARANA ⁽¹⁾	LEITZA
ETXEBIZITZAK	73	4	55
KOMERTZIOAK	16	4	17
ADMINISTRATIOA	17	1	6
MOLDAKETAK-ETXEZ ETXKO ZERB.	20	2	19
ASEGURUAK-BANKUAK	32	2	23
GARRAIOAK-BIDAI AGENTZIAK	14	0	9
BERTZEAK	53	3	19
Denetara	225	16	148

⁽¹⁾ 2. seihilabetekoa

Mikel BEZUNARTEA Iratxe Kontsumitzaile elkarte

“Eskari haundia dugunez Baztanera astero joanen gara”

Bortziritara hedatu duzue zerbitzua eta apirilaren 23an hasi zineten Lesakan eta Bera ere izanen zarete. Zein egun eta ordutegitan?

Berara hilabeteko lehendabiziko ortziralean, hau da, astelehenetik igandera aste osoa duen lehendabiziko ortziralean. Lehen hitzordua maiatzaren 7an izanen dugu eta hurrengoak ekainaren 11n. Lesakan, berriz, hortik bi astera izanen gara, hau da hilabeteko

hirugarren aste osoko ortziralean. Maiatzaren 21ean eta ekainaren 25ean izanen gara. Horrela egingen dugu txandatu. Lesaka eta Bera aukeratu ditugu, hemengo herri haundienak direlako eta 10:00etatik 13:00etara egonen gara. Zerbitzua emateko ordua eskatu behar da Herriko Etxeetan eta hor ematen ditugu.

Eskaririk balitz, hilabetean bitan baino gehiagotan etortzea pentsatua duzue?

Ez gara ausartu zerbitzua astero ematera, hasiera honetan jendearen aldetik nola erantzuna dugun ikusi behar delako. Baztanen, errate baterako, 8.000 biztanle daude eta laister proposatuko dugu astero joatea, ikusita jendeak zerbitzua erabiltzen duela eta ordua eskatuta ere, gurekin egoteko aunitan hilabete osoa esperatu behar dutela kontuan hartuz. Gure asmoa ahal den zerbitzurik onena ematea da eta horretarako gehiagotan etorri behar baldin badugu etorriko gara, dudarik gabe. Hori ikusiko dugu aintzinxeago.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa:(+34) 948 63 54 58

Faxa:(+34) 948 63 54 57

erredakzioa@ttipi-ttapa.net

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Raket Gofii.

Kolaboratzaileak: Raket Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Male-rrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Espaloiak oinezkoentzako

Irain Eskola Publiko-ko eta Tantirumairu ikastolako gurasoen elkarte-ek autorik gabeko egunaren inguruko kanpaina egin berri dute. Hori baliatuz, eta ibilgailuen trafikoari nahiz herritarren elkar bizitzari orokorrean ekarri dizkion onurak aztertuta, Lesakako herriko biztanle guz-
tiori zuzentzen gatazka, 2004ko apirilaren 19tik aitzina, trafikoa arautzen duen Udal Ordenantza indarrean sartuko dela jakinarazteko. Horretarako, 15 eguneko informazio eta kontzientziazio kanpaina burutuko da. Egindako arauhaustea ohar baten bidez jakinaraziko da, eta bide batez, ordenantza bete behar dela oroitarazi. Arreta berezia eskainiko zaie aparkatze-arekin zerikusia duten arau-hausteei. Ez da arrazoizkoa kotxeak herriko espaloietan aparkatzea, guztiona den espazio publikoan. Mugikortasuna eragotzi egiten dute, baita haurren jolasa ere. Eta euren segurtasuna arriskuan jartzen dute. Era berean, epe honetan egiten diren ohartarazpenak errolda batean jasoko dira, eta berrerortze kasuak, dagokien isunarekin zigortuko dira.

Ekimen honen helburua ez da bilketa kanpaina bat burutzea, baizik eta kontzientziazioa, eta oroitaraztea hobe dela herrian kotxea ez erabiltzea. Distantziak ez dira luzeegiak, eta aparkalekuak baditugu. Herri gunearen zerbait lekutan, eta ordu jakinetan, zerbitzuzko ibilgailuei, auto pribatuei nahiz

oinezkoei ezinezkoa zaie zirkulatzea. Izan ere, eta udal erroldaren datuen arabera, 2.300 ibilgailu motordun baino gehiago ditugu Lesakan, eta 2.700 biztanle. Zirkulazio dentsitate honi, aparkaleku guneen erabilera okerra gehitu behar zaio, eta horren adibide gisa, gehiago erabiliko ez diren ibilgailuak aparkaleku publikoan uztea. Halaber, bertzelako arazok gaineratu behar zaizkio, hala nola, gehiegizko abiadura, zarata, edota maiz egiten diren trafikoa arau-haustea.

Udal hau, udal-agintearen bidez eta bizilagunen laguntzaz, herriak gaur egun duen trafikoko egoera hobetzen saiatuko da. Horregatik, bideheziketa berri bat proposatzen dugu, oinezkoek, bide-publikoen erabilera, baina batez ere espaloiaren berreskuratu dezaten.

Herrian ez da beharrezkoa autoa erabiltzea.

Lesakako EAJ-PNV/EA

ttipi-ttapa eta Patxiku Irisarri Etxalarko alkateordeari

Leitzako Eusko Alkartasunaren aldetik hurrengo adierazpenak salatu nahi genituzke: Ttipi-ttaparen 371. alean Patxiku Irisarri jaunak zuzenean Leitzako Eusko Alkartasuna akusatzen zuen esanez, Leitzako Eusko Alkartasunak Ttipi-ttapari diru laguntza kendu nahi dion zurrumurruak daudela.

Leitzako Eusko Alkartasunaren aldetik Pa-

txiku Irisarri jaunari esan nahi dioguna hurrengo hau da, inongo jakintzarik eta informaziorik gabe gezurretan eta manipulaziotan ez ibiltzeko. Leitzako Eusko Alkartasunak ez du inoiz Ttipi-ttapari diru laguntza kendu behar zaionik esan. Hare gehiago, Leitzako Eusko Alkartasunak beti defendatu eta defendatuko ditu euskerazko aldiakari edota egunkariak. Beraz, Leitzako Eusko Alkartasunak gezurrezko eta asmo txarreko akusazio hau mesedez erretiratzeko eskatzen dio Irisarri jaunari.

Bestalde, esan behar da Leitzan badela beste proiektu bat, eta da, egunero-egunero egunkari euskaldun bat plazartzeko asmoa eta Leitzako Eusko Alkartasunak gai hau ehuneko-ehunekoan sostengatzen duela. Beraz, Irisarri jauna, manipulaziotan eta gezurretan ibili beharrean eta honelako akusazioak egin aurretik oso ongi informatzeko eskatzen dizugu.

Beraz, jakinaren gainean egongo zarenez, Euskera da euskaldun guztien altxorrik handiena eta berau da euskaldun egiten gaituena, hau dela eta, altxor hau ere ez dezazula batzuen bali- bezala erabili. Besterik gabe:

Leitzako Eusko Alkartasuna

Lesakako Udalarari

Lesakan ibilgailuak aparkatzeko ezarritako arauak dagokienez, etxea teilatutik hasi dutela iruditzen zait, erabakiak zentzu gehiagorekin hartu behar direla uste bai-

tut. Seguru naiz bati baino gehiagori pasatu zaizkiola burutik nik orain aipatuko ditudan ideiak:

1. Lehenik eta behin, autoak gutiago erabiltzeko ohitura zabaldu behar litzateke. Gidariak heztea eta kontzientziazioa garrantzitsua da edozein aitzakiarekin autoa har ez dezaten.

2. Bertetik, aparkaleku gehiago behar lirateke.

3. Eta akabatuz, behar bada garrantzitsuenak, ibilgailuentzat bide-seinaleak jartzea ezinbertzeko iruditzen zait.

Azken ideia honek zerrikusi handia du aparkatzeko ditugun zailtasunekin, izan ere Lesaka ezagutzen ez duen jende aunitz herri barrene-raino sartzen da autoa uztera naiz eta osasun zentrorra, futbol zelaira edo tanatoriora joan behar duen. Euskal Herrian herri gehienek dituzten bide-seinaleak behar ditugu Lesakan, ikaragarri lagungarri direlako joan behar dugun tokira zuzenean ailegatzeko eta ibilgailua ahalik eta hurbilen uzteko.

Tomaseneko Borda-ko errotonda toki estrategikoa litzateke seinaleak paratzeko, honako toki hauetara joateko adibidez: suhiltzaileen parke-
kera, zaharren egoitzara, osasun-etxera, igerilekuetara, futbol-zelaira, autobusen aparkalekura eta industrialdera.

Hala ere, Autobusen aparkalekuko eta industrialdeko seinaleen garrantzia azpimarratu nahi dut, batez ere ibilgailu astunengatik, aunitzek herri-rako bidea hartzen baitute eta gero ezin buelta eman ibiltzen direlako Le-gar Baratzean.

J.F.L. (Lesaka)

Labiaga Ikastola? "Fede txarreko temerarioak"

Bertzeak bertze, honelakoxe kalifikatiboekin baloratzen du Nafarroako euskalgintzarako gaur gero mitiko bihurtu den Merino epaileak Berako Labiaga Ikastolaren jarrera egoskorra. Izan ere, Ikastolak DBHko etapa baimendu ahal izateko zabaldutako bide administratibo luze-luzea (hamar urtez) Iruñetik etorri zaigun azken ebazpenarekin tratatu baita: Labiagak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduaren erabakiei paratutako azken helegitea ez baitu ontzat eman Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak, eta Hezkuntza Departamenduaren jokaera legezkoztat jo.

Laburbilduz, auzitegi aretoko kideon ustez, Nafarroako Gobernuak legez jokatu du Labiagako DBH ez baimentzerakoan. Ikastolak, berriz, gaizki ez ezik, arront gaizto jokatu du: "tan terca que incurrer en plena temeridad y mala fe" (sic). Hau da, Auzitegiak, Hezkuntza sailaren jokaera ederreitsi du eta Ikastolaren bide administratiboz egindako bere eskubideen defentsa gaitzetsi.

Honaino nomahik pentsa lezake, tira, hamar urte pasa dira bai, baina arrazoa eman ez badiuzete zerbaitengatik izanena da, ezta? Horra hor kokxa. Hezkuntza Departamenduak aldiro-aldiro azken urteotan egindako eskakizunei egokitu gatzakiela baina epaileek jarraitzen dutela bertze aldera begirutzen. "Jolaslekurik ez duzuela", bala-

dugula hona Herriko Etxearen baimena..., "bai bazuze baina ezinezkoa da ordutegiak bateratzea", bateratzen ditugu bada... "Ez, ez da posible zeren horretarakoxe sortuko dugu Foru Dekretu bat". Tira, hortaz Matzadako zelaia utziko digu Herriko Etxeak... "Matza-zer? Igoal du Kirodegirik ez duzue" Baie-etz... Herriko Etxeak uzten digula... "Tori dekretua berriz ere". Eta horrela beti.

Arrazoa ez digute eman, ados, baina ezta kendu ere. Ez dute baimenik eman nahi eta kitto! Izan ere, eurek leporatu diguten benetako ga-bezia onartu dugularik eta hartara, konpontzeko plangintza aurkeztu zaie-larik, honatx epailearen erantzuna: "No nos valen intenciones de futuro si no realidades actuales".

Harrapa ezak/n buztandik!

Kontua da, Labiaga ikastolaren borroka administratiboa amaitu dela gurean. Zerbait gehiago nahi izanez gero Madrilerat jo behar dugu (izan ere, ebazpena "Erregeren izenean eta Espainiar Herriak emandako aginteaz" sinatzen baita). Egin, hala egin dugu eta Kasazio Helegitea aurkeztu. Kontua da, diogu, tenorea dela bertze bideak jorrazteko.

Berako Labiaga Ikastolak egundaino ez du beldurrik izan bertzenazko bide horiek egiteko, areago, arrazoa eta legitimidadea gure alde dauzelarik. Argi dago deus gutxi espero dezakegula legea bera ikusi nahi ez duen justizia banatzailearengandik. Zer egin behar dugu, ordea? Bada, aurrena egiten ari direna

salatu. Hurrena, Ikastola osatzen dugunon ez ezik herritarren elkartasuna landu eta, azkena, erantzun estrategia bateratu.

Hortaz, alde batetik, esperoan egoten ahal gara jarrita, ea noiz heldu diren Ikastolako atekaitera. Bertzalde, denon artean adosten ahal dugu erantzuteko modu bat, edo aunitz... ez dakigu. Hori solastu eta erabaki beharko dugu heldu den ortziraletan, maiatzaren 7an arratsaldeko 7.00etan Altzateko Ikastolan, guraso, bazkide eta laguntzaileei deitutako Ikastolako Batzar Orokorean. Oroitu, hortaz, indar eta jarrerak bateratzeke: ortziraletan Fede txarreko temerarioen batzarra Berako Ikastolan.

Labiaga ikastolako batzardearen izenean

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Alberto RETEGI
abokatu
Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

BAZTAN
Borda salgai.
3.500.000 pta./
21.000 €
☎ 627 258753 (Josean)

Itzi Beldros
Lenkonea
Foruen Plaza 2 • BERA
tel.: 948 625 542
faxa: 948 625 541

«**USOA**»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ERREKALDE
OSTATUA
PLATER
KONBINATUK
PINTXOKAK
BOKATUK


Leoncio IRIZAR LOPERENA
2003ko maiatzaren 4an hil zen Beran
«Artzainak jiten dirade Larrañera bedatsian:
ihizari franko ere hürriuntik larrazkenian»
«Juan zaikü lur huntarik, nuiz dükegü holakorik?
Urepelean ehortzirik, gure goguan bizirik».
ZURE FAMILIA.


© 948631076 • BERA

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

**BEINTZAko
OSTATUA**
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ARKUPEAK

Urteroko Gimnasia erakustaldia Berako kiroldegian egin zuen erretiratu elkarteak

Apirilaren 25ean laurogeita bat kirolari eta hainbat ikusle bildu ziren

ttipi-ttapa

Apirilaren 25ean egin zen Berako Toki-Ona kiroldegian urtero Arkupeak erretiratuen elkarteak antolatzen duen Gimnasia Besta. Normalki, Iruñeko Anaitasuna kiroldegira jotzen du Arkupeak elkarteak, baina aurrean eskualdean bertan, Beran gelditzea erabaki dute. Guzira 81 kirolarik parte hartu zuten erakustaldian.

Patxi Txokarrok gidatuta, lehenik Sunbilla eta Leitzako taldeak aritu ziren. Leitzatik Carmen Gaztañaga, Reyes Zubeldia, Serafina Ezkurra, Lorentxa Telletxea, Eusebio Maritorea, Pakita Aierdi, Pilar Alkoz, Joaquina Azpiroz, Edurne Oteiza, Martin Jose Labaien, Isabel Huarte, Justo Mihura eta Benantxi Bengoetxea aritu ziren eta Sunbilla-tik Francisca Iriarte, Maria Zubieta, M^a Carmen Errandonea, Iñaki Aizkorbe, Juana M^a Sanzberro, M^a Josefa Bertiz eta Teresa Agirre.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Arkupeak elkartearen 13. Gimnasia erakustaldian parte hartu zuten kirolari eta monitorea.

Ondotik, etxekoentxanda ailegatu zen, Berako taldearena. Leire Portu monitorea erranetara, Alicia Irigairi, Maritxu Martikorena, Carmen Mitxeltoena, Pakita Irazoki, M^a Pilar Irazoki, Josette Suso, M^a Josefa Loiarte, Josefa Bengoetxea, Rosa Telletxea, Pepita Mingegia, Pakita Burgete, Malen Barandiaran, Araceli Gallego, M^a Jesus Zubieta, Esther Iñarga, Pepita Agirre, Maddi Mikelperizena, Pura Correa, Angela Corral, Lucia Golarazena, M^a Luz Ro-

zas, M^a Carmen Jimenez, M^a Jesus Diaz, Loli Iribas, Fani Matxiarena, Aisha Khadar, M^a Carmen Castelos, Kontxi Mikelperizena eta Visitacion Gallego aritu ziren.

Azkenik, berriz ere Patxi Txokarro monitorea txanda izan zen, oraingoan, Doneztebe, Etxalar, Elizondo eta Urdazubikoekin. Doneztebetik M^a Josefa Arretxea, Itziar Juanikorena, Isabel Juanikorena, M^a Carmen Irigoien eta Isabel Mitxeltoena etorri ziren; Etxalartik Esther Bereau, Candida Eli-

zalde, Juanita Etxeberria eta Virginia Arburua; Elizondotik Kontxita Iturria, Elisa Garbalena, Maritxu Oharriz, Lola Ladera, M^a Luisa Arraztoa, Kontxi Sansiñena, M^a Carmen Bidegain, Juliana Elizaintzin, Ana M^a Etulain, Asun Alti, Juanita Dendarieta, Juanita Goñi, M^a Dolores Etxegarai, Marcelina Ormart, Eva Lertxundi, Anuntxi Mendiberri, M^a Jesus Gamio eta Rosa mendiburu eta Urdazubitik, Miguel Migeltorena, M^a Angeles Orbegoiz, Francisco Irigoien eta Teresita Bidart.

Honenbertez akautu zen gimnasia erakustaldia, baina oraindik ere Jabier Larraldektixtuz zo zuen jota eta arin-arina dantzatzeko indarra eta zaulitasuna erakutsi zuten parte-hartzaileek. Gero, opari bana jaso zuten. Autobusa hartu eta Zalain eta Zubiondo jatetxetan bazkaltzera joan ziren. Guzira lauhun lagun bildu ziren bazkarian eta bazkalondoan berriz ere gorputza mugitzeko modua izan zuten, dantzaldiarekin akautu baitzen Arkupeak elkartearen gimnasia besta.

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA


K TEL K K MISET K ISE K TXISKE
N AI UZUNK U U, NEU I CT (SEINU) ERIN
Ezt r z h T l- F X 3 15 21


Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630088
BERA


Zalain
jatetxea
Zalain jatetxea • Tfno: 948 63 09 47
Bera - Nafarroa

BERA

3.643.000 euroko udal aurrekontua ahobatez onartu da

Bestetako kartel lehiaketako lanak maiatzaren 21a baino lehen

Amaia eta Ainhoa

Udalak 3.643.464,46 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurtengoan, garai bateko 660,5 milioi pezeta, apirilaren 19an ahobatez onartutako udal aurrekontuaren arabera. Aralar, EA eta Herrialdek aintzinetik eztabaidatua zuten aurrekontua eta hiru taldeen oniritziarekin onartu da. Udalak %8,27ko zorpetzea izanen du, normalizat jotzen den portzentaiat baino puntu bat guttiago eta horregatik aurrekontu xumea egin behar izan dute aurtengorako. Inbertsioetarako 1.282.184,20 euro (213 milioi pezeta gutti gora behera) erabiliko dira. 230.000 euro karririk hobetzeko erabiliko dira, bertzeak bertze Altxateko Plaza, lamoteneia eta igerilekuen arteko bidea, Ugalzubia, Legia eta Kaxerna karririk eta San Migel zubia zolaberritzen. 222.835 euro mendilanetarako, hemen %70eko dirulaguntza izanen delarik eta 133.539 euro lbardingo merkataritza gunerako

ura hartu eta eramateko. Lan honetarako dirulaguntzaren esperan dago Udala eta horretarako dirurik ez baltitz, ez litzateke lana egiten. Kultur Etxea molatzea 82.000 euro gostatuko da, liburutegia molatzea 6.000 euro eta kiroldegia konpontzea 32.000 euro. Lan hauek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izanen dute. Honetaz gain, kultur programazioarako 90.000 euro bideratu dira, horietatik 60.000 euro herriko hamabortz kultur taldek beraien ekitaldiak egiteko. Gizarte Ongizate arlorako 18.850 euro izanen dira. Gazteen aisialdirako programa, drogo menpekotasunaren prebentzioarako programa, guraso eskola, bolondresen programa eta etorkinekin egin beharreko lanak gauzatu dira diru horrekin. Kirol ekitaldietarako 23.952 euro bideratuko dira. Diru sarrerei dagokienez, Hazienda Lokalak fondotik 640.000 euro eszepto dira, hiri kontribuziotik 320.000 euro, zirkulazio zergatik 194.000



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Gazte Eguna

Apirilaren 24an, Berako Gazte Asanbladak antolatuturik, Gazte Eguna ospatu zen. Eguneko ekitaldi nagusia gazte jokuak ziren eta goizeko 11etan egin zuten taldeen aurkezpena. Guztira zazpi taldek parte hartu zuten: Zantantzarrak, Attonkaxkuk, Mafiak, Arrimzte, Xiziriak, Zuztrapilo eta Gazte Asuntua. Goizean pintxo lehiaketa egin zen eta ondoren prestatutakoarekin bazkaria egin zuten. Arratsaldean, aldiz, oka jokoa, aulkien jokoa, bizi-bertsopotea eta karaokea. Afaldu eta gero kontzertuari hasiera eman zitzaion. Argazkian ikus daitekeen bezala, egun honek arrakasta handia izan zuen eta bertzeak bertze, bizi-bertsopotean kontatutako txisteekin (argazkian), agerian gelditu zen Berako gazteen umorea.

euro eta ur kontribuziotik 165.000 euro, bertzeak bertze. Urtero dirusarrera garrantzitsua oihan lanetatik dator baina sektorearen krisia dela eta aurten erdira jaitsiko da sarrera hori eta oihan lanetatik 240.000 euro eskuratzea esperatu du aurten Udalak.

Ikastolako Batzar Orokorra

Maiatzaren 7an, ortziral honetan, eginen da Labiaga Ikastolako Batzar Orokorra. Ikastolako guraso, bazkide eta laguntzaileei zuzenduta dago eta bi deialdi luzatu dira, lehendabizikoa 18:30etan

eta bigarrena 19:00etan, Altxateko egoitzan.

Bestetako kartel lehiaketa

Berako Udalak aurtengo San Estebanek iragarriko dituen egitarauko azalerako lehiaketa deialdia egin du da goeneko. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izanen du lehiaketan, eta nahi bertze lan aurkeztu ahal izanen ditu. Gaia, Bera izanen da, besta garaian edo bertze edozein garaitan. Formato bertikalekoa izanen da kartela, 18x24cm-koa eta argazkia edo diseinua ez da inongo euskarriren gainean para-

tuko. Lanak maiatzaren 21eko eguerdiko 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira Berako Herriko Etxeko bulegotan. Epaimahaia Berako Kultur Batzordeko kidez osatua egonen da eta sari bakarra emanen da, 300 eurokoa.

Erakusketa

Kultur Batzordearen eskutik, maiatzaren 15a bitarte Gardena Taldearen "Lorategiak" margo erakusketa ikusi ahal izanen da Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. Arratsaldetan idekiko dira ateak 18:00etatik 20:00etara.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRIAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

© 948 63 1462
Altxate 1 • BERA

Xiziri

LESAKA

Egoitza berria inauguratu du Arkupe pilotazale elkarteak

Antepatako aldagela moldatu dute ehun bazkideendako

Aitor AROTZENA

Arkupe pilotazaleen elkarteak egoitza berriaren inaugurazioa egin zuen apirilaren 24an. 1985. urtean sortu zenetik, pilotazaleen elkarteak Beheko Plazan izan da, Txanpalenearen beheko solairuan. Baina etxe hori botatzeko asmoa du Udalak eta hori gertatu baino lehen egoitza berria egiteari ekin zioten Arkupe elkarteak ehun bazkideek. Honela, Antoiu karrikan, garai bateko Antepa igerilekuen aldagela lana egiten zuen etxola eman zien Udalak, baldintza bakarrek: kanpo aldera ematen duen komuna ere egitea, jakinik orain haurrendako parke gisara erabiltzen dela Antepatako putzua zena. Hori horrela egin da eta elkarte gisara egoki moldatu dute Arkupeko bazkideek. Inaugurazio ekitaldia baino lehen, Arkupe elkartearen ize-nean ari diren haurrek pilota jaialdia eskaini zuten udal pilotalekuan. Gero, inaugurazio ekitaldian, pilotaren alde lanean segitzeko intentzioa agertu zuten baz-

kideek eta Juan Fermin Mitxelena alkateak, udalak Arkupe elkarteari lokala ematearen arrazoiak azaldu zituen.

Haurrentzako antzerkia eta zirko tailerra

Arrano Elkarteak, Nafarroako Gobernua-
ren Arte eta Kultura egitarauaren barnean haurrentzako antzerkia eta zirko tailerra antolatatu du maiatzaren 15ean, larunbatarekin. «Zirika Zirikus» taldeak antzerki emanaldia eskainiko du 17:00etan Kasinon eta hori akaututakoan zirko tailerra egiten da.

ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI
Zaila ez ezik, ezinezkoa da apirilean herrian izan dugun kultur egitarau aberatsa hiru argazkitan biltzea: Erdi Aroko feria, Pedro Lanzen eskularen erakusketa, Lesaka ezagutzeko ibilaldi eta lehiaketak... Liburuaren Egunean Estitxu Mentaberri ipuin kontalariaren emanaldia, ehunka gazte bildu zuten Gazte Olinpiada eta Tantirudantzako irudiak aukeratu ditugu horiek laburbiltzeko.



ANA
Janaridenda

Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zirko
JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ZINETEKA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOLI, TALLETXEA ZUZUYA

Gasola etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

Erraldoi berriak eginen dira Andremari bestetarako

Dagoeneko martxan da ilea mozteko zerbitzua Larraburuan

Joseba eta Nerea

2003ko Andremari Bestetan egin zituzten orain arte ezagutu ditugun erraldoiek beren azkeneko buelta eta dantzak. Izan ere, urte parrasta bat egin ondotik erretiratzeko tenorea ailegatu zaie eta orain erraldoi berriak prestatzen ari dira, hauek jurbilazioa aprobetxatzen duten bitartean. Irungo Garate-Soto S.L eskultura tailerrak hartu du erraldoi berriak egiteko ardura, 8000 euro kostako direnak guti goitibeheti. Anabel Arburua zinegotziak erran digunez, aitzinekoak bezalakoak izanen dira berriak, neska-mutiko baserritarrek osaturikoak, baina erraldoi hauen berezitasuna beso mugikorrek dituztela da, Nafarroa osoan bortzirietan bakarrik daude horrelako erraldoiak.

Lapurreta Lorpenen

Lapurrak sartu ziren joan den apirilaren 22an, arratsez, Lorpen galtzerdi fabriketan. Eraikinetako bazter batean bi zulo egiten saiatu ondotik, azkenean leiho bat hautsiz lortu zuten barrenera sartzea. Behin han, zuela 3 astetik arratseko turnorik ez zegoela eta barrenean inor ez zegoela aprobetxatuz, dena errejistratu eta dirua ebasten saiatu ziren, seguridade alarma guziak hondatu eta gero. Lorpeneko langile batek erran digunez 100 euro bakarrik eraun zituzten, "kaja fuertea" haustea ez baitzuten lortu. Azkenean, eskapo joan zirela pentsatzen dute, langileak edo Guardia Zibila somatuta, hor sartzeko erabili zituzten paila, pikotza, esmerila eta



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Apirilaren 29an, ekintza berri bati hasiera eman zioten Larraburua elkarteak. Herriko Mari Kruz Indaburu ileapaintzailearen eskutik, ilea mozteko saioak antolatuta dituzte hilabete eta erdian behin, podologoarekin batera. 10 lagunek emana dute izena eta Jabier Indaburuk erran digunez lehenbiziko eguna hagitz ongi joan zen. Hala ere, momentuz gizasemeak bakarrik animatu dira eta emakumeentzat ere atea irekiak daudela aipatu digu, gainera, berze herrietako jubilatuek ere etortzen ahal direla.

aizkorak bertan utziz. Azkeneko astean Elizondo eta Donezteben ere gisako lapurretak izan dira, nahiz eta elkarren artean harremanik ote duten ez dagoen oraindik baieztatua.

Larraburuko 1. udaberriko lehiaketa

Martxoan akautu zuten Larraburuko mus eta partxiszaleek Magra Txapelketa eta orain lehiaketa berri bat hasi dute: Udaberriko 1. lehiaketa. Joan den maiatzaren 2an jokatu zituzten lehenbiziko par-

tidak eta igandero bilduko dira, bortz astez, apuntatu diren 12 bikoteak. Bi taldetan banatuta ariko dira eta talde bakoitzeko irabazleek elkarren kontra jokatu dute finala. Txapel-dunentzako saria kilo bat eta erdiko urdaiazpiko zati bana izanen da eta bigarren, hirugarren eta laugarren gelditzen direnentzako kilo bateko urdaiazpiko zatia. Nobedade modura, lehiaketa honetan aritzen diren guzientzako markako bi ardo botila emanen zaie. Ekainaren lehenbiziko igandean jo-

katuko dute finala eta egun berean eginen da sari banaketa.

Gasna Feriarako laguntzaile bila

Altxata Kultur Elkartetik jakinarazi digutenez heldu den ekainaren 6an eginen den Gasna Feria egunerako laguntzaileak behar dituzte. Egunean berean, goizean mahaiak paratzekeo, bazkaria zerbitzatzeko eta biltze-lanak egiteko. Honetarako prest daudenak juntako edozein kidearekin harremanetan paratzea bertzerik ez dute.

KOXKILA OSTATUA
 Berriro mus Koxkilan!
 Astero opari ederrekin

Zarandia, 4 - LESAKA

Ioredenda

Albistur, 39-K
 ☎ 627542
 LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

ALBERTO
 CLASSIC & SPORTWEAR
 1983

CARAMELO	ARMANI JEANS
GENFINS	CALVIN KLEIN
DOCKERS	REPLAY
ZONE	DIESEL
KOIKE	LIBERTO
TIMBERLAND	SCOTCH & SODA

EZKONGAIEN eta GONBIDATUEN JANTZIAK
 MUGANera ELKARTUAK
 Hondarribia k., 6 - Tel-Fax: 943 615815 • IRUN

HERRIKO
 ISYAYU - JATETxea

Amatzena 10.000 - 10000 10.000
 10.000 - 10000 10.000

IGANTZI

Udaberriko bestek segida eskatzen dute hurrengo urteetarako

Hemezortzi urte bete ditu Patxi Txoperenak Arkupeak Elkartean



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Lau argazki hauek Udaberriko Besten egitarua irudikatzen dute: Alcer-ekoen hitzaldiak hamabortzen bat lagun bildu zituen ortziral ilunabarrean Erretorbaitan. Organoen donazioa izan zuten mintzagai bideo batez lagundurik. Ortziralear berean kantu afaria izan zen Biltoki Elkartean Jaione eta Oskar kantarekin. Berandu arte egon ziren bertan izena eman zuten hogeita borts lagunak, bikotearen kantekin gozatuz batzutan eta tarteka eurekin abestuz ere. Larunbatean eskolako haurren lanak egon ziren ikusgai pilotalekuan, herri kirolekin zer ikusia zuten lanak gehienak; gero opil jatea izan zen haur guzientzat. Azkenik, igande goizean Kaxot-i egindako omenaldia izan zen. Honi buruz aldizkariaren kirol atalean arrautuko duzue informazioa.



PERTSONAIA

Patxi TXOPERENA

Arkupeak elkartean hemezortzi urte bete dituelako omenaldia

Joan den igandean zen egitekoa Elizondon Arkupeak Elkarteak Patxi Txoperena igantziarra eta Manuel Arregi oronoztarrari eskainitako omenaldia. Biek hemezortzi urte bete dituzte dagoeneko, batak Igantzin eta bertzeak Oronozen, Arkupeakeko ordezkari gisara. Elkarteak, zabaldutako oharrean erratan zuen bezala, euren lana eskertuz urte hauetako dedikazioarengatik eskaini nahi izan die omenaldia. Erran bezala, ekitaldia Elizondon zen egitekoa, meza eta sarien banaketarekin eta gero Gorraizeko Gazteluan ziren biltzekoak izena emana zuten 450 lagunak.

LEGARRA

Prentsa _____ Fax publikoa _____
 Liburuak _____ Plastifikazio _____
 Tabakoa _____ a _____
 Opariak _____ Enkuadernazi _____
 Kuxumusu _____ o _____
 kamisetak _____ lanak _____

Egunero *Irakur*
lanak

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

ATM S.A.



AUXILIAR DE
 TRANSFORMADOS
 METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

DONEZTEBE
 Nabea salgai Aparan
 industrialdean. Aukera.

ULTZAMA
 Pelikulako etxea salgai
 800 m²ko lur
 eremuarekin.

Atarrabia Agentzia
 Serapio Huizi 14 behe
 ☎ 948 124541 (Patxi)

ARANTZA

Nafarroako Bertso Eskolen Topaketa egin da Aterpen

Ortziraletik hasi eta igandera bitarte bertsolariak eta bertsozaleak bildu dira bertan

Nerea ALTZURI

Nafarroako Bertsozale Elkarrekin antolatuta, Nafarroako bertso eskolen topaketa izan zen pasa den aste honetan Arantzako Aterpean. Ortziraletan, larunbatean eta igandean iragan zen topaketa eta bertsolari eta bertsozaleen gune izan da Aterpea. Hiru egunetako egitaraua prestatua zuen Bertsozale Elkarrekin: ortziraletan, elkar ezagutzeko joko batzuk egin ondoren, bertso afaria izan zen Jon Maia eta Xabier Silveirarekin. Larunbatean, goizean kirol jardunak egin ondoren, arratsaldean bertso ikastaldiarekin segitu zuen egunak. Arratsaldean bertso desafioa izan zen Araizko bertso eskola eta Nafarroako selekzioaren artean. Igandean, gosaldun ondoren, bertsolariaren gaineko asteburua akautzat eman zuten.

Sendotza

Maiatzaren 16an zortzi

gazte konfirmatuko dira Igantzin. Sendotza hartzeko ekitaldia bi urtean behin egiten zen herrian, baina oraingo txandan, gazteek goizaia bi herrietatik batera etorriko zela mezua jaso zuten. Zozketa egin eta aurten Igantziri egokitu zaio elizkizuna bideratzea. Hemendi bi urtera, herritarrek eta igantziarrak Arantzako bilduko dira.

Mendi itzuliko kamisetak

Iaz bezala, aurten ere Mendi Itzuliko kamisetak salgai dira. Ekaitza elkarrekin eta Gazte Asanbladak antolatuta maiatzaren 30ean egingo den mendi itzulia iragartzeko kamiseta soinean izan dezakezu. 15 eurotan salgai daude herriko ostatuetan eta dendetan.

Pistaren asfaltatzea

Joan den aste hasieratik Orsa enpresako langileak eta ka-

mioiak Aientsa eta Azkilarrea auzoetatik pasatzen den bide nagusia breaztatzen ari dira. Guzira 190.572,16 euro gostako da herritik hasi eta Aientsa bitarteko pistaren asfaltatze lanak. Gastu hori Nafarroako Gobernuak, Herriko Etxeak eta Azkilarrea eta Aientsako auzotarrek finantzatu dute. Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Departamenduak %60 finantzatu du eta gelditzen denaren erdia Herriko Etxeak eta bertze erdia, bi auzoetako etxe bakoitzak 810,94 euro ordainuz finantzatu da. Guzira, bi auzoetako 46 bat etxeren artean 38.114,43 euro ordaindu dira eta bertze horrenbertze udalak partatu du.

Etxarri Aranazko abesbatza

Aurten ere, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamenduak Udaberriko Bi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Beñat Mitxelena herriko pilotari gaztea ageri da argazkian. Joan den apirilaren 3an Zizurko buruz buruko lau terdiko pilota txapelketaren finala irabazi zuen bere kategorian, Mikel Iriarte leitzarra 18 eta 7 garaituz. Gipuzkoaldeko zenbait txapelketetan segitzen du orain Beñatek, buruz buru eta bikoteka, Joseba Pikabea herritarra lagun duela.

ra antolatu du eta Nafarroako 68 herritan antzerkia, dantza, zinea eta musika esparruak hartuz, ekimenak egin edo egitear dira urte sasoi honetan. Joan den apirilaren 24an, Etxarri Aranazko abesbatzak emanaldia eskaini zuen

elizan, ilunabarreko mezaren ondoren.

Fjord taldea

Fjord musika taldeak bere lehenbiziko emanaldia eskaini zuen apirilaren 23an Aterpen. Iban Zugarramurdi da taldeko batera jolea.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxes: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

PIKABEA pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpuz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

DONEZTEBE



ARTXIBOKOA

Egitarauan ekitaldi berezirik ez baldin bada ere, aziendekin animazioa izanen da Merkatu Plazan ortziraleko Udaberriko Feria egunean.

Udaberriko Feria ospatuko da ortziral honetan

Aziendak goizetik ikusteko modua izanen da

ttipi-ttapa

Ortziral honetan, maiatzaren 7an egingen da Doneztebeko Udaberriko Feria. Aspalditik egiten baldin bada ere, azkeneko urteetan Herriko Etxetik feria hau bultzatu nahian dabil-tza. Goizetik, aziendak ikusteko aukera izanen da eta udazkeneko ferriekin konparatuz, la-

saiago ikusi eta solas-teko modua izanen da. Kanpotik etortzen diren ferienteak ere arras gutti izaten dira eta horrek, bere xalotasunean, xarma ematen dio Udaberriko Feriari. Egitarauan ez da bertsolari, pilotari edo aizkolaririk ageri, baina baserritar aunitz hurbilduko dela jakina da, ortziraleroko feria

egunari, aziendak gehituko baitzaizkio.

Malerrekako pilota txapelketa

Apirilaren 20an hasi zen Erreka Kirol elkarteak antolatutako Malerrekako eskuz binakako bigarren txapelketa. Aurrebenjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil, senior eta pilota goxua

mailetan ari dira eta Nafarroa osoko bikoteek jokatuko dute bertan.

Partiduak asteazken arratsaldetan eta larunbat goizetan jokatzen dira, Doneztebe eta Sunbillako frontoiak tartekatuz. Finala, berriz, ekainaren 26an jokatuko da Donezteben, San Pedro besten egitarauaren barrenean.

SUNBILLA

Ulibeltzak elkarteko mus txapelketaren finalak jokatu dira


Fermin Zelaieta eta Angel Mariezkurrena izan dira aurtengo txapelkunak

Antonio E.

Joan den apirilaren 17an akautu zen Ulibeltzak elkarteak antolatutako 2004. urteko Sunbillako mus txapelketa. Hamalu bikotek parte hartu dute aurtengo txapelketa honetan. Larunbatean musean gogor aritu ondoren, finalean Fermin Zelaieta eta Angel Mariezkurrena, Pakita Mikelarena eta Mari Carmen Errandonea aile-

gatu ziren. Final lehiatuaren ondotik, giza-semeak izan ziren txapelkunak. Hirugarren postua Martin Irazoki eta Patxiku Zelaietarentzat izan zen eta laugarrena Jose Martin Agirre eta Ana Mari Saldiasentzat.

Partehartzaile guzientzako sariak baziren eta denak gustora eta heldu den urtean berriro aritzeko gogotsu gelditu ziren.



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA



LARRALDEA
SAGAROTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATUAK,
VENECIANAK... **PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK**

MALERREKA

VI. ipuin eta bertso-paper lehiaketa abiatu du Euskara Batzordeak

Sari banaketa maiatzaren 19an egingen da Doneztebeko eskolan

ttiipi-ttapa

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna bulkatzeko haur eta gazteendako ipuin eta bertso-paper lehiaketa antolatu du seigarren urtez. Lehiakideak bi mailatan banatu dira, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailakoak, hau da, 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoak eta Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoak, 10 eta 12 urte artekoak alegia. Lanak euskaraz aurkeztu behar dira, jatorrizkoak izan behar dira eta gaia librea izan da. Egile berberak sail bakoitzean lan bakar bat aurkeztu ahal da.

Ipuinen sailean aurkeztutako lanek guttienez bi orrialde eta gehienez sei izanen dituzte. Bertso-paperak, berriz, guttienez lau bertso-ahapaldikoak eta gehienez zortzikoak izanen dira. Lanak maiatzaren



ARTXIBOKOA

Malerrekako haurrek bere ipuin eta bertso-paperekin sariak eskuratzeko aukera izanen dute berriz ere.

5ean, asteazkenarekin, bildu dira. Sail bakoitzean sari eder bat banatuko da. Sariak gain, sarituen lanak ttiipi-ttapan argitaratu dira eta partehartzaile guzietan opari tiki bat jasoko du.

Maiatzaren 19an, asteazkenarekin, Doneztebeko eskolan sari banaketa egingen da eta partehartzaile guzietan txokolatea eskainiko zaie.

Liburu bat egiten erakusketa

Maiatzaren 3tik 7ra, "Liburu bat egiten" erakusketa zabalik dago Doneztebeko erakusketa aretoan, liburategiaren ondoan. Erakusketa honen antolatzaileak Malerrekako Mankomunitatea, Doneztebeko San Migel ikastetxea, Doneztebeko Mendaur DBH Institu-

tua, Erreka Guraso Elkarte eta Mendaur Guraso Elkarte dira, Doneztebeko Udalaren laguntzarekin. Erakusketa bisitatzeko, 9:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 19:30etara zabalik izanen dira aretoaren ateak.

Liburu bat egiteko prozesua xehetasun guzietan azaldu nahi da erakusketa honetan.

DONAMARIA

Bideak moldatzeko lanak Azpiegitura Planean

ttiipi-ttapa

Bengotxekoborda eta Pagolea baserrietako bideak eta Gazteluko hilerriko bidea zolaberritzeko lanak aurtengo Toki Azpiegitura Planean sartu ditu Nafarroako Gobernuak. Lanen aurrekontua 168.705 eurokoa da eta 153.122 euro Nafarroako Gobernuak jarriko ditu.

Arestian aipatutako bideen zolan ormi-goia botako da, baina aitzinetik belarrak eta sasiak kenduko dira. Zehazki, Gazteluko hilerriko bidean 254 metro zolaberrituko dira, lauzpabertz metro zabalera emanaz. Bide bazterrean, 160 metroko ormigoizko kuneta egingen da. Bi baserrietako bideek, berriz, 1.167 metroko luzera izanen dute eta hiru eta hiru metro terdi arteko zabalera. Laurbilduz, 5.367 metro koadroko ormigoia emanen da obra haue-tan.

616 513 497
Pititi
 ESKABAZIOAK
 C/Azandía
 31010 DONEZTEBE (NAFARRA)

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

LESACA

LANA

Zalaingo lantegiko lan egoera salatu du ELA sindikatuak

Kontratazio politikak langileak babesik gabe uzten dituela uste du

ttipi-ttapa

Aceralia enpresak Zalainen duen lantegiko behin-behinekotasun egoeraren inguruko prentsaurrekoa eskaini zuen ELAk Iruñean apirilaren 22an. Nafarroako iparraldeko lantokietan eta batez ere Zalaingo lantegian Aceraliako zuzendaritzak duen jarrera agintzailea eta diskriminatzailea salatu nahi du sindikatuak. ELAren ustez, Zalaingo langileek bata bertzearen gibeletik jasaten dituzte behin-behineko kontratuak. Zuzendaritzak egoera hau txalotu eta justifikatzen duela dio ELAk, eta «ez du inongo lotsarik errentagarritasun ekonomikoa mantentzeko beharrezkoa den *malgutasuna dela errateko eta defendatzeko*».

ELAriezinbertzekoa iruditzen zaio Nafarroako erakundeei egoera hau jakinaraztea. Helburu honekin Lan Ikuskaritzan behar ziren kontsultak egin ditu sindikatuak, arazoa konpontzeko jarrera baikorrik aurkitu gabe. Langileek banan bana Aceraliaren aurkako salaketak jartzea izan da eman dieten aukera bakarra eta ELAren arabera, «lan munduan gertatzen diren arau-urrazteak zigortzeko eskuduntza duen erakunde

batek, behin-behineko langile ahul batek Aceralia multinazional ahalguztidunari aurre egitea proposatzea argigarria da». Era berean, ELAk Nafarroako Gobernuako Industria eta Lan saileko kontseilariaren aitzinean salaketa jarri du egoeraren analisi zehatza eginez, baina langileendako ez dute deus haundirik espero.

Aceraliako zuzendaritzak kontratazioaren inguruan azken urteotan Zalaingo lantegian burutu duen gestioa ere salatu du ELAk. Egoera hau dela eta gaur egun langile guzien ar-



ARTXIBOKOA

Zalaingo lantegiko langileetatik lautik batek behin behineko kontratua du gaur egun eta egoera hori salatu du ELA sindikatuak.

tean %25,51k behin-behineko kontratua du, eta finkoak beharko luke 40 lanpostuetan behin-behineko kontratua duten pertsonak ardira lanean.

Azkenik, Zalaingo lantegiaren jabe berria izanen den Condesa taldearen egoera ere salatu du ELAk, kontratazioaren ataleko oinordetza jasoko duelako. Condesak ez du egoe-

ra hau sortu, baina lehenbailehen konpondu beharko lukeela uste du ELAk. Kontuan hartu behar da behin-behinekotasun taldea ahulagoa izanik, eta murrizketak eman beharko balira, enpresak egoera hau aprobeztatu nahiko lukeela uste du sindikatuak. ELArentzat pertsona hauek eskubide osoko langileak dira, eta ondorioz hainbetez ur-

tez gogorlan eginda gero irabazita dituzten lanpostuen defentsan bereziki zorrotzak izanen dira. Joan den hilabetean 13 ebentualen kontratua ez berritzea eta kitatzea sortu duen egoerak, ELAk publikoki salatu duena, argi eta garbi erakusten du kontratazio politikak, honelako erabakien aitzinean, langileak babesik gabe uzten dituela.

Langabetuak kontratatzeko dirulaguntzak udalentzat

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, dirulaguntza emanen die eskualdeko zenbait udaleri, langabetutako pertsonak lanean aritzeko. Kontratu hauek, guttienez hilabete bateko iraupena eta gehienez bederatzikoa izanen dute, eta herriak hobetzera eta gizarte zerbitzuak egitera bideratuak daude. INEMen izena eman duten eta azken bi urteetan kontratuarekin bederatzikoa baino gehiago lan egin ez dutenen artean gauzatzen ahal dituzte kontratuak udalak.

Arantzako Udalak, herriko karraketan eta udal eraikuntzetan edertze eta kontserbazio lanak hiru langile kontratatzeko 17.821,20 euroko dirulaguntza jasoko du. Donamariako Udalak,

bide bazterrak eta Gaztelu eta Askarragako garbilekuak moldatzeko bi langile hartzeko 10.395,68 euroko dirulaguntza izanen du. Doneztebeko Udalak, herrian zenbait lan egiteko hiru langile hartuko ditu, 22.276,48 euroko dirulaguntzarekin. Eratsungo udalak, San Millan karrika inguruan karrika zabaltzeko eta bidea moldatzeko bi langile hartzeko 4.455,28 euroko dirulaguntza izanen du. Etxalarko Udalak, errepedeak, bide bazterrak, aparkalekua, lokalak eta bertze zenbait gauza moldatzeko bi langile hartuko ditu eta 10.395,68 euroko dirulaguntza izanen du. Ezkurra-ko udalak, herrian mantenimendu orokorreko zenbait lan egiteko hiru langile hartuko ditu eta 6.682,92 euroko dirulaguntza iza-

nen du. Igantziko Udalak, herriko biltegia moldatzeko, herriko hainbat bide garbitzeko eta paretak eraikitzeko lanak egiteko bi langile hartuko ditu eta 8.910,60 euroko dirulaguntza jasoko du Nafarroako Gobernutik. Oizko Udalak, harrizko paretak bat moldatzeko eta zaborrontzien kokapena egokitzeko bi langile hartuko ditu eta 1.485,10 euroko dirulaguntza jasoko du. Urdazubiko Udalak, leku publikoen moldatze, garbitze eta mantenimendu lanetarako langile bat hartuko du eta 2.227,64 euroko dirulaguntza izanen du. Zugarramurdiko Udalak, azkenik, bide publikoen eta berdeguneen mantenu eta garbiketarako langile bat hartuko du eta 2.970,20 euroko dirulaguntza jasoko du.

BERTIZ

Filme Laburren zazpigarren zinemaldia prestatzen hasia da Partzuergoa

Lanak aurkezteko maiatzaren 12 baino lehen eman behar da izena

t tipi-ttapa

Bidasoaldeko Filme Laburren nazioarteko zazpigarren zinemaldia prestatzen hasia da Bertizko Turismo Partzuergoa. Zinemaldia abuztuaren 23tik irailaren 3ra egingen da Doneztebe, Hendaia, Elizondo, Bera eta Lesakan. Laburmetraiak aurkezteko maiatzaren 12a baino lehen eman behar da izena eta filmeak abuztuaren 13a baino lehen igorri beharko dira.

Lehiaketako lehen saria 3.000 euro eta urrezko iratzea izanen da; bigarren saria 1.500 euro eta zilarrezko iratzea eta mila euroko bertze lau sari banatuko dira, brontzezko iratzearekin: gai naturalistikoak, ekologikoak, etnografikoak, ingurugirokoak edota paisajistikoak hobekien jorratzen dituen filmeari alde batetik, bake eta giza baloreak modurik hoberean lantzen dituen filmearentzat bertzetik; Akitania, Euskal Autonomi Erkidego eta Nafarroako egile batek egindako filmerik hoberearentzat eta aktore edo aktorea onenarentzat. Ikuslegoaren sari berezia eta argazki sari berezia ere izanen dira, sari ekonomikorik gabe.

Zinemaldia iragarriko duen kartel lehiaketa ere deitu du Bertizko Partzuergoak. Gaia libreza izanen da, gehieneko neurria 50x40 cm.koa eta 400 euroko sari bakarra izanen da.



Er s n h uzun

hl t n ur r n tk k rrk.

t zur rs tn
5
 tzul zu u

ur | Kutx r n C m r Tx rt |

Esk z zu r n zur lx rt | rr .

ur | Kutx r n C m r Tx rt | k . ur t r t k t k k r tu
 sk ntz n zu n h uzun uz r s t . r n r ntz k . *

Kr tu h u ut m tk k h un tzn . hl . Cr m r t z tzn r n
 k ur n n r . G n r , uz t r n 5 . r t n , lx r t h n k n r n ut k
 r s k t n 5 . t z u k z u u t . un h z t t k t z n r . 1,25 . sk r t t u k
 z u u .

Et . . . r t u Tx r t h u M u n u k . z n l k u n r . t z n h l u z u l ,
 k m r z . U n . t k u x z n u t m t k t n r .

www.rur.tv/es/en

**NAFARR AK
 RUR | KUTXA**

GOIZUETA

La milioi bat euroko udal aurrekontua onartu du Udalak

Idoia eta Iñigoren atxiloketen kontrako mobilizazioak egin dira

Esteban AROTZENA

Herriko udalbatzak onartu berria du ia milioi bat euroko aurrekontua, 984.056 eurokoa zehatzagoa esanda. Aurrekontuaren ardatza mendia da, bertatik etorriko baitira diru-sarrerarik haundienak, 496.300 euro, eta aldi berean, horretan erabiliko da gastuen zatirik gizenena. 220.000 euro aurrikusten ditu Udalak mendien birlan-daketak, garbiketak eta abar egiteko. Gainerako gastuak ohikoak di-

ra, zerbitzu ezberdin eta pertsonalari dagozkionak batez ere, baina aipagarriak dira babes ofizialeko etxebizitzak erakitzeko lurra erosteko erabiliko diren 60.000 euroak eta zine zaharren lokala eta Lubineko frontoiaren berrikuntzaren proiekturako zuzendu den diru saila.

Herritarren Zerrenda

Herritarren Zerrenda (HZ) Europako hauteskuntzetan egoteko beharrezkoak diren 40.000



ARGAZKIA: IÑIGO L.

Idoia eta Iñigoren atxiloketei erantzun ederra eman zieten herritarrek. Udalak elkartasuna adierazten zien mozioa onartu zuen eta kontzentrazio jendetsuak egin ziren egunero Idoia askatu eta Iñigo komisaldegitik Fresnesko kartzelara igaro zuten arte.

sinaduren bilketa aste honetan bukatuko da. Beraz, oraindik Herriko Etxetik igaro ez diren herritarrek beste aukera bat izanen dute larunbat honetan, udal bulegoak irekiak egonen baitira goizeko 11:00etatik 13:00ak arteko orduetegian.

Haur, guraso eta eskolen topaketa

Goizueta-Arano, Leizta eta Aresoko eskoletako ikasleak elkartu asmoz urtero burutzen den festa gure herrian egingen da maiatzaren 15ean. Eskualdeko prebentzio programak eta

Guraso Elkarrekin antolatzen dute bosgarren Haur Olinpiada hau. Bi erakunde hauek dira, hain zuzen, Josune Txoperena dietistak elikadurari buruz maiatzaren 18an eskolako jangelan 15:00etatik aurrera emanen duen hitzaldia antolatuta dutenak ere.

ARESO

Hainbat programa martxan ditu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Maistraren etxebizitza margotzen ari dira

Juana Mari SAIZAR

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dituen programen berri zabalduko ditugu. Alde batetik, babesturiko giza lanaren barne, peoiak Aresoko eskolako maistraren etxebizitza margotzen ari dira, etxe honen erabilera herriko talde desberdinei zabaltzeko asmoa baitu Udalak, biler edo lanak egiteko

tokia izan dezaten. Beste aldetik, prebentzio programatik Askagintzako psikologo baten hitzaldiak burutzen ari dira eskolan. Gurasoei zuzendutako hiru saio egingen dituzte asteartetan gai hauei buruz: arauak, mugak, errespeta eta komunikatzeko gaitasuna. Lehenengo saioan, herriar bitxikeri garrantzitsu ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Goizuetan maiatzaren 15ean egingen den haur, guraso eta eskolen topaketarako autobusa izanen da.

ten aurrean gaudela iruditu zitzaion psikologari eta gurasoei begiak zabaldu nahi izan zituzkien. Bestalde, maiatzaren 15ean, larunba-

tarekin, haur, guraso eta eskolen bosgarren topaketa ospatuko da Goizuetan, Areso, Arano eta Leitzako umeekin. Dantzari, trikitalari, gin-

kana, antzerkia, karaoke eta beste izango dira, denon artean presatatu eta eginak. Autobusa izango da Goizuetara joateko.

ttipi ttapa

373. zenbakiarekin banatua

Herriz herri, bestaz besta

Salbatore
tximindularitza
sariak 51 urte
beteko ditu
aurten Iruritan...



Urdazubiko V.
Kontrabandisten
Lasterketa maiat-
zaren 25ean iza-
nen da, igandean

Salbatoreak Irurita eta Urdazubin



Maiatzaren 19tik 23ra



Composites Baztan *Poliesterezko lanak* Konpromesurik gabeko presupuestuak



- Impermeabilizazioak: terrazak, igerilekuak, deposituak...
- Fosa septikozak, kripte lanatzaleak.
- Deposituok fabrikatzen ditugu.
- Karruzarien errebestimenduak, furgonetak, erremolkeak, traktorrak.
- Era guztietako molde eta pieza egiten ditugu, produktiorako.
- Kanalozak, neurritan eginak, altzairua baino egonkorragoak.
- Produktu desberdinak, karretien karkasak, saskiak, tsakurren kaxak...

☎ 948 58 18 24 • fax: 948 58 18 52
✉ composibaztan@terra.es

Zakubia industrialdea, Iruña - Dantzarinea errepidea
31730 IRURITA

Iruritako egitaraua egunez - egun

Asteazkena 19 Bezpera Eguna

12:00etan Altxaferoa, kalejira herriko trikitilarien esku eta ezkil jotzea. **20:30etan** ezkil jotzea. **21:30etan** Baztanzopak. **24:00etatik 4:00etara** SALABE-RRirekin dantzaldia.

Ortzegune 20 Salbatore Eguna

10:00etan kalejira herriko trikitilarien esku. **11:00etan** Meza Nagusia (herriko korak abesturik). **12:00etan** herriko dantzarien erakustaldia. **13:00etan** herrikoentzat hamaiketakoa. **17:30etan** goitibera lasterketa. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. **22:00etan** mutildantzak. **24:00etatik 4:30etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

Ortzileria 21 Haur eta

Jubilatuen Eguna

10:00etan kalejira tri-



ESKOLAKO MUTIKOAK BERENDUA HARTZEN. ON DAGIZUELA!

kitilarien esku. **11etatik 13:00ak arte** haurrendako jolasak. **14:00etan** oilo jatea haurrendako, jubilatueko bazkaria Olari jatetxean eta Baigorri gazteenda-

ko. **15:30etan** haur jolasak. **18:30etan** kalejira txarangarekin. **19:00etan** txokolate jatea. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. **22:00etan**

mutildantzak. **24:30etatik 4:30etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

Larunbata 22
12etan kalejira txarangarekin. **14:00etan** he-

rriko bazkaria txarangak lagundurik. Bertsolariak; Sustrai Colina eta Xabier Legarreta. **18:00etan** nesken Aranabiako IX. Paleta txapelketaren finala. **20:30etatik 22:00etara** dantzaldia

ARKUPE GOZOTEGIA

Tarta bereziak eta Etxeko izozkiak
IRURITA ☎ 948 452021 • ELIZONDO ☎ 948452393

BAZTAN MOTOR, S.L.

Mekanika, elektrizidatea, txapa eta pintura
Auto berri eta erabilien salmenta

Zaldubia • IRURITA
Tel. eta Faxe: 948 452 119



TELEFONO ETA
HELBIDE BERRIAK

ttipi-ttapa

Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

☎ (0034) 948 63 54 58 / Faxe: (0034) 948 63 54 57



BIG STAR SHOW taldearekin. **22:00etan** Mutildantzak. **1:00etatik 5:00etara** gaupasa BIG STAR SHOW taldearekin.

Igandea 23

10:00etan LI. Txirringulari Salvatore Saria.
11:00etan Meza

Nagusia. **11:30etan** kalejira txarangarekin. **17:30etan** Saralegi Anaien eskutik, Iparraldeko jokuak eta korte australiarra. **18:30etan** profesionalen arteko pilota partiduak, Frontis enpresaren eskutik: Errandonea II eta Mendia, Badiola III eta Elolaren kontra.

Alustiza eta Errandonea, Ariznabarreta eta Armendarizen kontra. **19:30etatik 20:45etara** dantzaldia IRATI taldearekin. **20:45etatik 22:00etara** ANSAAHIZPAK kantaldia. **22:00etan** Mutildantzak. **00:30etatik 1etara** dantzaldia IRATI taldearekin eta besten akabaila.

IRURITAKO PLAZAN, LAXOA PARTIDAREN AITZINETIK ANGELUSA ERREZATZEN. ASPALDIKO OHITURA HORIEK GALTZEN JOAN BALDIN BADIRA ERE, LAXOA ORAINDIK ERE INDARTSU DAGO HERRIAN.

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo!
Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 635 458




Maderas GOMEN

- Era guzietako atearak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

OLARI

Jatetxea



Tfnoa: 948 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

IRIARTEA BENTA*Chez Peys*

Ostatua - Autozerbitzua - Larrua...

Tfnoa: 948 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI



© 948 63 54 58

Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu**ANASTASIA OSTATUA****Janari Denda**

Tfnoa: 948 59 90 27 - URDAZUBI

Besta zoriontsuak
opa dizkizueguDisko musika
Goizaldera arte**ETXELEKUA**

ETXEKO BEHI eta ARDI GASNA

Zugarramurdiko karretera,
© 948 599169 URDAZUBI**SANTIAGO VILLARES****GARRAIOAK**

- Luzerna
 - Agotza eta lastoa
 - Luzerna - pentsu granulatuen
 - SALMENTA eta EXPORTAZIOA
- © 948 59 91 34
609 41 57 77
URDAZUBI

**LAPITXURI**Merkataritza
gunea**Zerbitzurik onena lekurik onenean**

BAR - SNACK - TAPAS

HABANAKO ZIGARROAK INPORTAZIOAN**MARKA GUZIETAKO ZIGARRETAK**Janaridenda - Harategia - Frutak - Lekaleak - OROIGARRIAK
LURRIN, BITXIKERI ETA ARROPA DENDA

OPARITU ZAITEZ KUTIXI GUZTIAK. ITXAROTEN ZAITUZTEGU.



DANTXARINEA • Telf. (0034) 948 599 093

ZUBIONDOAOstatu
Autozerbitzua
Oroigarriak

Tel: (0034) 948 599 041 / DANTXARINEA

**ARMUA
Jatetxea**Zugarramurdiko karreteran, 3. km
© 948 59 91 31 - URDAZUBI**ARRETXEIA BENTA**Tabakodenda • Janaridenda
Jantzidenda
Zapatadenda

Tel. eta Fax: 948 599015

DANTXARINEA ESTAZIO ZERBITZUATel.00 34 948 599250
DANTXARINEA

Urdazubiko egitaraua egu- nez - egun

Asteazkena
Maiatzak 19
Salbatore Eguna

20:00etan ezkil jotze-
ak altxaferuekin.

20:30etan zintzur bus-
titzea. **21:30etan** Her-
riko afaria Karretero
ostatuan. **23:00etan**
dantzaldia MODES-
TOK alaitua.

Ortzeguna
Maiatzak 20
Salbatore Eguna

11:00etan Meza
Nagusia. **12:00etan**
frontoian aperitifa,
dantzari eta gaiteroe-
kin. **15:30etan** haurren
jokoak Herriko Plazan.
17:30etan pilota parti-
da Urdazubiko gazte-
en artean. **22:00etan**
paellada herriko fron-
toian ETXABE ANAIEK
alaiturik. **24:00etan**
dantzaldia ETXABE
ANAIEKin.



BESTETAN NAHIZ IÑAUTERIETAN, MUSIKA ETA LAGUN KOADRILA BEZALAKORIK EZ DA UMORE
ETA GIRO EDERREAN PASATZEKO.

Ortzilara
Maiatzak 21
Ugarana elkarte-
aren Eguna

13:30etan Ugarana
Elkartearen herriko
bazkaria. **14:30etan**
Dianak Dantxarineako
Bentetan MODESTO-
rekin. **15:30etan** Hau-
rrendako jokoak.
18:00etan Haurrenda-
ko txokolatada. **20:00-
etan** dantzaldia MO-
DESTOrekin **23:00-
etan** dantzaldia
SAMAINekin.

Larunbata
Maiatzak 22
Zikiro Eguna

14:00etan Zikiro jatea.
Ondotik, animazioa he-
rriko ostatueta LAR-
RAKAITZ txaranga-
rekin. **21:00etan** Zin-
gar jatea frontoian.
24:00etan dantzaldia
GAUBELArekin.

Faustino ETXABE Tailerrak
Autoen konponketa
Besta on batzuk pasa!

© 948 599038 • ZUGARRAMURDI

Judiarra Beita
Jatetxea - Ostatu

Ongi pasa herriko bestak

Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

Angel BENGOTXEA
eraikuntzak

Era guzietako argin lanak

☎ 948 599484 • URDAZUBI

BYRKAITZEA
ostatu - erretegia

Ongi pasa herriko bestak!

Zugarramurdiko bidea, 3 km.

© 948 599280 • URDAZUBI





Igandea
Maiatzak 23
2004ko besten
azken eguna

17:00etan Urdazubiko
V. Lasterketa, Urdazu-
biko inguruetan.

18:00etan Nafarroako
Sokatira Txapelketa
goma gainean:

600 kiloko lehen jardu-
naldia (mutilak).

Taldeak: Beti Gazte,
Txantrea, Berriozar eta
Ezkabaondoa.

20:00etan txartelen
zozketa. 21:00etan
suzko zezena.
21:30etan «Gaixo ni».



Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu

☎ 948 63 54 58

Kategoria bereziko hostala

✦ IRIGOIENEA ✦

Tel.: 948 59 92 67 • www.irigoiena.com
URDAZUBI



IKABURUA
Ostatu - Jatetxe - Erreategia

- ☛ Jostalekua haurrentzat
- ☛ Terraza estalia

Lezeetatik 50 m.tara

☎ 948 599 222
URDAZUBI

M^a Cruz Plaza
Harategia

Ongi pasa bestak

Tfnoa: 948 599008 - URDAZUBI

Josune ileapaindegia

Gizon eta emakumeendako
ILEAPAINDEGIA

☎ 948 599028 • URDAZUBI



**On egin
janak eta
kalterik ez
edanak**

Pasa besta ederrak!

Dantxarinea - URDAZUBI
Tel.: 948 599496

Benta
Ostatua • Jatetxea

mikelenborda



Tel: 0034 948599045
31712 DANTXARINEA

JOSENEA
Zerbitzu
Estazioa

*Besta
ederrak
para!*

☎ 948 599030
URDAZUBI

SAMPI ARAGON

**Ibilgailu berriak,
kasik berriak
eta erabiliak**



**30 urte baino
gehiagoko
esperientzia**

© 948 450354 • Leitzako bidea • **DONEZTEBE**



Salbatore bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

Besta Zoriontsuak!

NAFARROAKO  KUTXA

BAZTAN
MUEBLES - ALTZARIAK



BAZTAN ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak.
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA



LANDIBAR AUZOAN URDAZUBI-NAFARROA

Otordu handiak • Famili jilerak



Ugarana jatetxean

Kinto bestak • Koadrila afariak
despertubak



Kupela sagardotegian

Trago eta pintxo goxoak



Mikela ostatuan

Besta, saltsa eta dantzak...



La Nuba diskotekan



**Etorri, probatu
eta gozatu**

**Erreserbak:
(0034) 948 599410**

LEITZA

«Bai Euskarari» egitasmoa aurkeztu zen Udaletxean

Aitziber Bergara arituko da enpresa eta komertzioak bisitatzen

Mikel ILLARREGI

Apirilaren 23an, Bai Euskarari Akordioa egitasmoaren aurkezpena izan zen udaletxeko Batzar Orokorretarako Areto Nagusian. Bertara azalpenak ematera Kontseiluko kidea den Zigor Etxeburua eta Idazkari Nagusia den Xabier Mendiguren hurbildu ziren. Dena den, hauen hitzak aditu ondoren, Leitza eta Aresoko alkateak Patxi Saenz eta Mikel Baraibar, Euskara Batzordeko Fernando Oitzun eta Enpresa bateko Gotzone Sestorain mintzatu ziren. Azken honen aburuz, posible eta nahitaezkoa da euskararen normalizaziorako pauso gehiago ematea. Hala ere, ezin ukatu era desberdineko arazoak sortzen direla. Gisa horretan publiko artean zeuden batzuk hitz egin zuten. Batzuetan, pauso eta helburu ezberdinak lortu nahian, kasuan kasu baina bakartasun sententzia eta arazo teknikoak sortzen direla aipatu zuten. Bestetik, administrazioarekiko harremanetan sortzen diren eragozpenak ere, azpimarratu ziren bertan. Hala eta guztiz ere, hitza hartu zuten guztiek, mahaian zeudenak eta mahaiaren beste aldekoek, euskararen presentzia areagotu behar dela eta ho-

rregatik orain prozesu honetan askoren inplikazioa behar dela errepikatu zuten. Hemendik aurrera burutuko den bigarren fase honetan, enpresa, taberna, komertzio... bakoitzak bere egoera zein den ikusi eta eman daitezkeen pausoak aztertzea izanen da helburu. Lan honetarako, banan bana bisitatu egingen dira. Lan horretan, hurrengo bi hilabetetan, Aitziber Bergara arituko da.

Maxurrenea herrintzat

Ohiko hileroko ekimena Erleta eskolak eta Denok Bat Guraso Elkarteak antolatuko dute. Maiatzaren 14an, ostirala, 15:30etan eskolako jantokian izanen da jarduna. 2. maila bitartekoek muralak eta marrazkiak erakutsiko dituzte. 3. mailatik 5. maila bitarteko ikasleek, Maxurrenari buruz etxean bildutako pasadizok, kontakizunak... irakurri eta azalduko dituzte. 6. mailakoek bertso saioa eskainiko dute. Guraso eta herritar guztiak gonbidatuta daude ekimenera.

Haur, Guraso eta Eskola Topaketak

Maiatzaren 15ean, Goizuetan, Prebentzio Programak, Areso, Goizueta eta Leitzaoko Gu-



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Euskal Herriko Kluben arteko pala txapelketan, Aurrera Kirol Elkartearen izenean, Iera Agirre, Etxarrikoa den Saio Aristorenarekin batera txapelketan gertatu zen jubenil mailan. Txapelketa ilbeltzaren 11ean hasi eta martxoaren 27 bitarte jokatu da. Bost bikotek parte hartu dute eta finalean, Aurreran izenean ere, ateratzen ziren Saioa Iraola eta Naiara Astibiaren aurka jokatu zuten. Azkeneko hauek bigarrenak geratuz, noski. Entrenatzailea, iaz bezala, Patxi Aranburu izan da.

BELGIKAKO ORDEZKARITZA (6)



Peter CRAAMER
Belgika

Belgikako, Hermalle Sous Argenteau herrian jaio zen. Leitza bi urte egin ditu baina hona etortzearen arrazoia edo "kulpa" ihintza Lizarragak du. Duela zazpi urte baino gehiago lana zela medio, Institutuko ikerketa taldean ezagutu baitzuten elkar. Hona etorri aurretik Belgikan eta Portugalen bizi izan dira. Ondoren, ihintza honantz etorri zen lan egitera eta bera inguru honetan lan bila hasi zen. Hiru seme-alaba dituzte; Hegoa, Belgikan jaioa eta, Aritza eta Enaut (bizkiak) hemen jaioak. Egun, Informatikako Lan Proiektuan aritzen da. Gehie-

nek bezala, "familia eta lagunak" dira faltan gehien sumatzen dituenak. Hala ere, "kaleko giroa, kaleko bizitza dira aldaketa handienak. Lana ere bai, hemen lan gehiago edo ordu gehiago sartzen dira lanean" dio. Bestelako aldaketak ez dira hain handiak bere iritziz; "bizimodu maila berdintsua iruditzen zait. Bazkaria egiterakoa, han, bokata bat jan eta kito. Hemen menua jaten dugu lantegikoek egunero". Han, larunbatero, koadrilaka, futbol partidak jokatzen zituzten "eta hori hemen ez dut ikusten. Hemen, jokatze talde batean sartuta behar duzu, entrenatu...". Hizkuntzari dagokionez; flamenkoa, frantsesa, ingelesa eta gaztelaniaz mintzatzen da. Umeekin, flamenkoz hitz egiten du baina, "orain euskara ikasten ari naiz. Hala ere, euskara, berez, ez da oso erraza eta gainera oso okupatuta bizi naiz. Dena den, etxean euskara aditzen dut eta ho-

ri abantaila da. Zenbait dendatan euskaraz eskatzen dut eta espero dudana erantzuna bada, ongi, baina bestelakoa bada, jai dut. Hizkuntza integrazteko nahitaezko elementua da. Nire auzoan turkoak, marokiarak, italiarrak, ... bizi ziren baina guztiek bertako hizkuntza ikasten zuten". Hona etorri zenean, hemengo berririk bazuen, dena den, aitortzen du, hemendik beste tokitara bidaltzen den informazioa oso neurtu eta "mugatua" dela. "Hemen jendeak asko hitz egiten du egoera politikoaz eta komunikabideak ere, oso bideratuak daude. Ni, hemen, han bezala, parte hartzailea baino obserbatzailea naiz".

Etorri eta bigarren egunera ezaguna zenak (nahiz eta berak oraindik herriko jende guztia ezagutzen ez duen) amaitzeko zera dio, "euskaraz idatzita egonen den hau, irakurri eta ulertu ahal izatea gus-tatuko litzaidake".

raso Elkarteek eta Euskal Herriak bere Eskola Taldeak antolaturik jai eguna ospatuko da. Egitarauan, Jinkana, kale-

jira, Aresoko dantzarien saioa, bazkaria (norberak berea eramanda), Leitzaoko taldeen antzerki saioak, Karaokea

eta txokolata ikus daitzke. Horra joateko autobusa doan. Informazio gehiago Goizueta-ko orrian.

BAZTAN

Santxotena Museoaren hitzarmenak gorabeherak sortu ditu Udalean

UPNk kontra bozkatu zuen eta eskultorea ere ez dago guztiz ados

ttipi-ttapa

Arizkongo Santxotena parke-museoa kudeatzeko hitzarmen proposamena onartu du Balleko Udalak, EAren aldeko botuekin eta UPNren kontrakoekin. Idatziaren arabera, Xabier Santxotena eskultoreak, eskulturak eta lur eremua utziko dizkio Udalari eta berak parkearen kudeaketa zuzena eginen du 20 urtez. Santxotena ez du hitzarmena sinatu oraindik eta zenbait puntu-ekin ados ez dagoela jakitun dira Udalean. Museoeko Batzordean ezadostasunak gertatuz gero, kalitate-botua alkatearena izatea nahi du Udalak, baina artistak berea izatea nahi du.

Carlos Garaikoetxea kultur zinegotziak jakinarazi duenez, «Udalak eskultura parkea ongi gatea eta jende aunitz etortzea nahi du, hori ballearen eta turismo, ostatu eta zerbitzu sektorearen mesedetan izanen baita». Garaikoe-



ARTXIBOKOA

«Emakume baserritarrak antolatua» izenburupean solasaldia antolatu du EHNE sindikatuak maiatzaren 11n, asteartearekin, 16:00etatik 18:00etara Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Euskal Herriko eta Txileko emakume baserritarren artean egindako elkartrukaketa bidaian berri emanen da. Txilera bisita egin zuen emakume taldeak prestatutako materiala ikusiko da eta Txileko nekazaritza munduaren berri emanen da, emakume baserritarren erakundea, bertako hazien berreskuratzea eta transnazionalen kontrako borrokaekin batera. Argazkian, gan den urtean Txileko emakume baserritarrek Baztanera egindako bisita ageri da.

txeak aipatu duenez, kalitate-botuarena da udalaren eta artistaren arteko ezadostasun nagusia. «Gure ustez—dio zinegotziak—hainbertze diru publiko gastatu den

proiektu batean udalak izan behar du botu hori». UPN, bere aldetik, hitzarmenaren kontra agertu da, udalarentzat mesederik ez duelako ezkerkaren: «Udalak ho-

gei urtez urtero 4 milioi pezeta ordaindu behar du eta artistak dena eramaten du, dirulaguntzak, sarrerak, eta bere lanak saltzeagatik lortzen duena».

FLASH

Jorge Oteiza Museo Etnografikoak urte bete du

9.275 lagunek bisitatu dute Elizondoko Puriosenean dagoen Jorge Oteiza Museo Etnografikoa, urte bete berri duenean. Horietatik kasik 800 Baztan bertakoak ziren. Urtean hamahiru ekitaldi ezberdin antolatu dira eta 861 lagunek parte hartu dute hauetan: Jorge Oteizaren *Amatasuna* eskulturaren inaugurazioa, genealogia eta heraldika jardunaldiak, *Laxoaren Gida* liburuaren aurkezpena, kontzertuak, Elizondoko abesbatza eta Juanito Eraso zenari buruzko solasaldiak eta Soalarko iruinaria lorategian jartzea izan dira ekitaldi nagusiak. Gainera, Museoaren Lagunen Elkarte sortuko da abudo. Ohorezko zazpi bazkide izanen ditu, Puriosenearen jabe den Iturria Reparaz familia, proiektuaren bultzatzaile sutsua izan zen Jorge Oteiza bera eta Ana Mari Marin elizondarra. Hau 1 zenbakia duen "Laguna" izanen da, «museoaren sorrerarako eta ekitaldiak gauzatzeko motoreak izan baita». Museoak bertze 90 kide ditu, laguntzaileak, udal agintariak...




ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

BAZTAN

Herrietako alkateek ez dute gehiago kobratuko aurten

Balleko Udalak aurrekontua mugatua duela jakinarazi du

tipi-tapa

Herrietako alkateek ez dute diru-sari haundiagorik izanen aurten, halaxe erabaki baitzen ahobatez Balleko Udalak egindako batzarrean. 2004ko aurrekontua «arras mugatua» dela izan da erabakia arrazoitzeko Udaletik jakinarazi dena. Halere, heldu den urterako herrietako alkateen sariak igotzeko diru-sailen bat ezartzea ez du baztertzen Balleko Udalak. Alkateek, gainerako juntakideek bezala, 100 euroko dietak eskatu zituzten junta bakoitzean parte hartzeagatik eta beraien lanarengatik. San Migel eguneko batzarraren ondotik egiten den bazkaria ere ordaintzea eskatu zuten, Michel Eraso Elizondoko alkatearen eskariarekin bat eginez. Komisionatu eta juntakideek, ordea, aurten berean hasiko dira kobratzen,

50 euro urteko lau Junta Generaletako bakoitzarengatik.

Administratibo heziketa zikloak ikasteko aukera

2004-05 ikasturtetik aintzineria Elizondo-Lekarotzeko bigarren hezkuntzako institutuan orain arteko hezkuntza eskaintzaz gain, erdi mailako eta goi mailako administratibo zikloak goizeko ordutegi murritzuan ikasteko eta eskualdeko enpresetan praktikak egiteko aukera eskainiko da. Eskaintza berri honen helburua hezkuntza sistema jende helduarengana iritsi araztea eta birziklatu edo bere ikasketak eguneratu nahi dituen langabetu, merkataria, autonomo edo bertze edonori zuzendua dago. Informazio gehiago 948-581805 telefono zenbakira deituta eskura daiteke.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Apirilaren 16an egin zen Udaberriko Feria Elizondon eta urtetik urtera indartzen ari dela somatu zen. Bertako produktuak karrikaratzea eta lehiaketaren bidez ardi azienden kalitatea hobetzea dira helburu nagusiak eta biak lortzen ari dira. Epaimahaiko kide den Josu Sarobe albaitariaren erranetan, artzainek kalitate genetiko eta morfologiko gehiagoko aziendak erosten dituzte. Goitiko argazkian, lehiaketa ezberdinetan saritutako batzuk ageri dira eta behegian, ahariko buru ederra.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
 © 948581468 • 948580433
 Frantziarako etorb. 12 •
 Ameztialde 3B • **ELBETE**

asnáp me
 GIZARTE ETA LAN ARLOA
 KONTABLE-FISKALA
 JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igeltzerak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan-aseguramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aiturpenak

DONOSTIA
 Baza Semerrio, 4. Solairu
 Telefono: 948 431922 Telefax: 948 431418
 web: telefon@asnappyme.com

ELIZONDO
 San Migel, 51. Solairu
 Telefono: 948 580 504
 elizondo@asnappyme.com

HELIOLA
 San Migel, 1. Solairu
 Telefono: 948 562238 Telefax: 948 562194
 heliola@asnappyme.com

MENDI OSTATUA
 Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea

 AMAIUR • © 948453060

SENPERE

Fermin Muguruzak eta Renata Rosak kantatuko dute hogeitabatgarren Herri Urratsen

Jean Iturria pilotazalea omendu dute herriko etxean

Franck DOLOSOR

Senpere euskaltzaileen hiri nagusia bilakatuko da egun batez, hogoita batgarren Herri Urratsa haundizki ospatuko baita maiatzaren 9an. Xede haundiak dituelakotz, usaian bai-

no jende gehiago bildu nahi du Seaskak. Aurtengo irabaziekin bi kolegio altxatuko dituzte Ziburun eta Baxe-Nafarroan. Aurten, besta gu-
ne berri bat estrenatu-
ko da.

Aintziraren inguruan

ez da deus falta izanen gonbidatu ainitz hurbilduko baita, hauen artean Fermin Muguruza, Brasilgo Renata Rosa, Tapia eta Leturia, Elektrotuna, Zipotzero eta Otsoak, bertzeak bertze.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Jean Iturria omendu dute lan egin eta laguntza ainitz eman baitu ehunka senpertarrerri. Emak-Hor musika taldean klerona jo ondoan ardura ainitz izan du Iturriak klikan eta pilota elkartean. 30 urtez su hiltzaile izan zen eta herriko kontseiluan egon zen bi lege alditan. Denen partez milesker haundi bat Jean eta ainitz urtez.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Martin Borthaire zoingehiagokan biharko errugbilarietako parte hartu zuten.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Hautzaindegi berria inauguratu ondoren, kirol zelaieko jartokiak eta aldagela berriak estrenatu dituzte berriki eskualdeko hauteskiek.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
URDAZUBIN



300 m² perfume markarik ezagunenekin
Usain-onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**



ZOANSA
SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

AZKAIN

Herriko Etxeak lotizamenduak eskaini dizkie gazteei

Kirol sasoin txarra izan dute errugbi eta saskibaloian

Angela eta Xamo

Euskal kostaldeko lurrraren prezioa ari da goititzen, partikularzki azken hamar urte hauetan. Preseski leku batzuetan, Azkainen, Donibanen, Miarritzen, gazte batek nahi badu lur puxka baterosi etxe bat eraikitzeko, konturatzen gira ezinezkoa agertzen dela ez baldin badu diru laguntzarik. Errealitate horrek gero eta galdera gehiago agertarazten ditu, bereziki Euskal Herriko gazteen bizilekuan etorkizunean.

Azkaingo herriko etxeak arazo horri lehen-tasuna emaiten dio, lotizamenduak gazteeri proposatuz. Lurra esku-ratzen ahal dute prezio merkean. Gan den urtean, hautetsiek bertze bi lotizamendu berrien lur zatikatzea bozkatu dute: Xara Baita eta Uhaldeko Borda. Halere, jendeen galde guziak ezin direlako bete, bertze leku berriak atseman be-

harko dira heldu diren urtetarako.

Kirolez kirol

Herriko kirol elkarteek ez dute urte on bat pasatu. Idatzi ginuen bezala, errugbilariek sasoin zail bat izan dute, partida guti irabazi dituztelako. Heldu den urtean, beheko mailan ariko dira beraz.

Saski baloiaren aldetik, emaitzak ez dira ederragoak. Heiek ere sasoina gaizki bukatu dute. Gizon eta emakumeak azpiko mailan ariko dira heldu den urtean.

Pilotaren sasoina ezta oraino bukatua. Frontoin txapelketak hasiko dira laster. Aldiz, trinketako finalak jokatuak izan dira. Marc Berasategik, Euskal Herriko lehen mailako finala jokatzekeo parada izan du duela aste batzuetan. Malurusi, ez du txapela herrirat ekarri, finala galdutako Heguiabereren kontra.



Uhaldeko Borda, lotizamendu berria.

ARGAZKIAK: XAMO



Zubiondo

Duela hilabete batzuetan, "Chergui" enpresa gure herritik joan zen Senpereko bide zaharrerat, aspalditik nahi zuelako toki egoki bat atseman bere aktibitateak segitzeko. Eraikin zaharraren jabeak herriko etxeari erostea proposatu zion. Duela guti, proiektu hori bozkatua izan da herriko kontseiluan, gordeleku berri baten erabiltzeko helburuarekin. Eraikin hori bi partetan zatitu dute: beheko partea herriko langileentzat atxiki dute, gela berri batzuetan izan ditzaten, gainera herriko enpresari alokatuz.



ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ
Arkitektoa

JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ
Arkitekto Teknikoa

Santiago, 55 - 2. B • 31700 ELIZONDO NAFARROA
Tel. 948 581 931 - 629 50 31 25
Fax. 948 581 854
e-Posta: arantxaci@terra.es

Okindegia
Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN

- Ogi artizana, egunekoa eta txapeta

JAIETXEAN

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilas erretako jakietan

Enkargatuz gero, bidaltza egia eta irria, gero gero!

Orduldi industrialdea • Tfnoa: 948 45 34 01 • 31713 ARIZKUN

SARA

Urtero bezala Sarako Gaztetxeak bere gaupasa antolatuko du

Euskal herrien arteko euskal jokoek topaketa ere egingen da

Xan eta Saski

Maiatzaren 8an, larunbatarekin, Herri Urrats bezperan egingen da iparraldeko euskal jokoek lehen topaketa. Antolatzaileek euskal joko tradizionalak bultzatzea eta berrituz indartzea dute helburu bezala. Lehiaketa bat izanen da, besta giroan toki ezberdinen arteko harremanak azkartzeko. Euskal Herri osoan iraganen den besta bat da: Saran, Andoainean (Gipuzkoan), Areatzan (Bizkaian), Gazteizen (Araba) eta Elizondon (Nafarroan). 12 partaidetako taldeak izan behar dira, 6 neska eta 6 mutilekin, 16 urte baino gehiago izan behar du pertsona bakotzak eta

ez da izan behar herri kirol talde batean lizentziatua. Froga desberdinak izanen dira gainditzeko hala nola: harri jasoetzea, ingudea, lasto altxatzea, dantza, jende zama, lokotxak, txingak, zaku eramatea, toka, trontza eta sokatira. Eta sailkatzen diren ekipen artean, finala iraganen da Gipuzkoan ekainean. 15etan hasiko da eta ats alde osoan animazioak, musika, haurren xokoa eta erakustaldi bat izanen dira.

Ondotik, Sarako Gaztetxeak urtero bezala gau pasa antolatuko du. Zintzur bustitze denboran plaza animatzeko Elektrotuna nafar taldea hor izanen da. Kontzertuak hasiko di-



ARGAZKIA: GARA

Gazteak Euskal herrien arteko euskal jokoek topaketarako trebatzen.

ra 21:00etan, Ufuestuek punk nafartar taldearekin, gero Sleepers Bordaleko rock taldeak joko du. Kuraia euskal talde famatua ere arituko da segidan eta Zipotzero taldeak dantzaldiarekin bukatuko du gaua. Egungoxo bat pasatzeko hurbildu denak Sararat.

Palako finalak

Pleka trinketeen, apirilaren 24ean, pala txapelketako finalak iragan dira, emaitzak hauek izan dira: lehen mailan, Ameztoy eta Casama-

yorrek irabazi dute 50 eta 45 Ladebat (Berge-rot) eta Halsoueten kontra. Bigarren A mailan, Barreneche eta Bergarrek 50 eta Sorhouet eta Halsouet 45. Bigarren B mailan Arotzarena-Jauregui ekipak 50 eta Uberria- Bereau 41. Hirugarren mailan, Goikoetchea eta Tapia nagusitu dira Larretche (Etcheveste) eta Darqui ekipari 50 eta 31.


Urtxintxak eskubaloia

Sarako urtxintxa talde-

ko neskek departamenduko erdi finaletan dira. Lehen partida jokatuko dute Escubes herriari maiatzaren lehenean eta bigarrena Saran iraganen da maiatzaren 8an polikiroldegian. Aupa neskek!!

Joko Berri

Joko berriko finalak iraganen dira maiatzaren 15 ean polikiroldegian. Zikiroarako izenak eman behar dira maiatzaren 10a aintzin zenbaki honetara deituz: 0559542004(Pepito).



URDAZUBI

Idauze-Mendin eginen den Maskaradara joanen da Urdazubi eta Mendexako jendea

Larunbat honetan izanen da antzezpena Zuberoako herrian

Koro eta Margari

Zuberoako Idauze-mendi, Bizkaiako Mendexa eta Urdazubiren arteko senidetze ekitaldien barnean, larunbat honetan, maiatzak 8, Idauze-Mendin eginen den Maskaradara joanen dira Nafarroa eta Bizkaiako ordezkariak. Aurten Zalgize eta Iurikoeak antolatzen dute Maskarada eta larunbatean errezibitzen dituzte Idauze-Mendin. Hau dela eta, Mendexa eta Urdazubiren artean autobusa antolatu da. Goizeko 11:00etan iritsiko dira Mendexa eta Urdazubikoak. Maskarada berez, 9:00etan iritsiko da eta herrian barna ibiliko da, baina 15:30etatik 17:30etara saio berezia emanen dute. Bien bitartean, 13:30etan bazkaria izanen da.

Baina larunbateko Maskarada ikustea ez da izanen hiru herri hauek elgarrekin eginen duten ekitaldi bakarra. Ekonomia arloan, uz-



UTZITAKO ARGAZKIA

Idauze-Mendi, Mendexa eta Urdazubiko udal hautetsiak eta Udalbiltza@ko ordezkariak, apirilaren 3an Urdazubin egin zen ekitaldian.

tailaren 3an Mendexa eta Urdazubiko hautetsiek eta agian udalerrri bakoitzeko produktugile batzuk, Idauze-Mendira hurbilduko dira bertako bizimodua, ekonomia eta lantegiak ezaugartera.

Kulturari dagokionez, abuztuaren 7an Urdazubin Kultur Eguna os-

patuko da urtero bezala, baina aurten bertze bi herriekin kultur topaketa egin nahi da. Goizean solasaldiak eta dantzak izanen dira eta gero zikiro-jatea. Egun horretan Idauze-Menditik eta Mendexatik mintzaldiren bat eta dantza saioen bat sartzea erabaki zen apirilaren 3an

Urdazubin egin zen bilkuran.

MENDEXAN DANTZA TOPAKETA EGINEN DA ABUZTUAREN 28AN

Bertze aldetik, abuztuaren 28an Mendexan dantza topaketa antolatuko da. Hiru udalerriko dantzariak elkar ezaugu eta saio bat ema-

nen dute. Egun hau bertze talde batzuk, erran nahi baita pilotariak eta irakasleak, elkar ezaugutzeko eta garatzen ahal dituzten lankidetzari buruz solas egiteko da.

Hirugarren adinaren arloan ere lankidetzak garatu nahi dituzte, adibidez, hiru herrien barna itzulia antolatuz. Honela, herri bakoitzeko adinduek bertze herrikoiei udalerrira erakutsi eta bertako elkartearen elkarrekin bazkalduko lukete, herri bakoitzeko plater bereziak ezaugartera emanez, bidena-barkoan.

Urdazubiko bilkuran aipatutakoaren arabera, herri hauen inguruetan egiten diren ferietan postu bat jartzea proposatu zen, herri bakoitzeko informazioarekin eta Udalbiltzaren Hurbiltzen programakoarekin. Herri bakoitzeko produktu tipikoak saltzeko ere probestuko zen, adibidez Elizondo eta Markinako ferietan.

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA

PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466
948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiama, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoak garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua



© 948630155

BERA

Etxe edo baserria erosiko. Ez du inporta non eta zein egoeratan.

☎ 665 854611

(Gonzalo Jauna)

**HERRIKO ETXEN
EDANTEGIA**
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583

ARIZKUN



NATURA

Orgiko hariztia eta Eztiaren Museoa bisitatzeko aukera izanen da maiatzaren 23an

Bertizko Natur Parkeak antolatu du ateraldia

ttipi-ttapa

Bertizko Natur Parkeko Naturaren Azalpen Zentrotik datorren maiatzaren 23an Lizason dagoen Orgiko Hariztia eta Eltson dagoen Ezkurdi Eztiaren Museoa eza-gutzeko asmoa dute. Aldatzen bazkaldu eta Etxarri Larraungo gaztandegian bisita ere eginen dute. Bisita guztiak eta autobusa eta bisitetako sarrerak 9 eurotan salgai izanen dira, helduentzat eta haurrentzat berdin eta ordainketa bankuaren bitartez eginen da. Izen ematea maiatzaren 12a baino lehen egin behar da eta

horretarako edo informazio gehiago jasotzeko Bertizko Natur Parkearen 948 592421 telefonora deitu behar da.

Eguneko egitarauari dagokionez, autobusa 9:45etan aterako da Elizondotik. 10:00etan autobusa Doneztebetik pasatuko da jendea jasotzeko. Ordu erdi beranduago Lizasora iritsiko da eta jendeak zerbait hartzeko aukera izanen du. 11:00etan Lizasoko Orgiko Hariztiara bisita eginen dute eta 12:30etan Ezkurdi-ko Eztiaren Museora joanen dira. 14:30etan bazkaldu eginen dute

Aldatzen, Larraun bailaran. 12 eta 18 euro arteko (gehi BEZa) menua jateko modua izanen da eta bertzenaz, norberak eramandako bokatak edo jakiak.

ETXARRI-LARRAUNGO GAZTANDEGIA ARRATSALDEAN

Bazkal ondoan, 16:30etan Etxarri-Larraun herriko gaztandegia ezagutuko dute bidaiariek, Idiazabal gazta nola egiten duten ikusteko. 18:00etan Doneztebera eta Elizondora bueltan etorriko dira eta 19:00etan egunaren bukaera izanen da.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Eduardo Uranga irundarrak arrantzatu zuen denboraldi honetako Bidasoako lehendabiziko izokina, apirilaren 28ko goizean. Bigarren aldia da irundar honek Bidasoako lehendabiziko izokina arrantzatzen duela. Bortz kilo inguru zituen izokinak baina Eduardok aipatutakoaren arabera, «horren bikoitza pisatzen zutenak ere atera ditu». Hau izanen da aurten komertzializatzen ahal den bakarra eta Iruñeko jatetxe batek erosi zuen.



Carlos

ETXEBERRIA ITZEA
ANTSONEAKOBORDA - AMAIUR

2004ko apirilaren 13an hil zen
Chinon (California) 79 urte zituela.

*Nork erranen du zer den aita bat joatea
zer den haren lekua hutsik utzea
Carlos zenak utzi du familia maitea
Jaunak dio ireki zeruko atea.*

BERE FAMILIA.



Maria Luisa
TXOPERENA AGARA

Lesakan, apirilaren 2an

*«Beti gure bihotzean egonen zara»
Momentu gogor hauetan gurekin izan
zaretan guztiei, mila esker.*

**Bere senarra ,
Urkijo-Txoperena familia.**



Jose Maria
SANTESTEBAN GANBOA

Elizondon hil zen 2004ko apirilaren
21ean, 53 urte zituela

*Sunbillan atezaina
Atzelari Beran
Elizondon erdilaria
Aurrelari bizian.
Zelaia, zeruko zelaian.*

GANBOA osaba-izeba eta lehengusuak.



EZKONTZAK

Francisco Aldaia Indakoetxea eta **Naima Okba**, Beintza-Labaien eta Marokoa, apirilaren 3an.

Juan Ignacio Castañares Lizarriturri eta **Maria Concepcion Osinaga Apeztegia**, Donostiakoa eta Doneztebekoa, apirilaren 17an.

Iñigo Etxebeste larza eta **Jurdana Eskudero Barral**, Oretakoak Artikutzan, apirilaren 4an.

Alejandro Garde Mendikoa eta **Estibaliz Danboriena Saharrea**, Iruña eta Elizondokoa, apirilaren 3an.

Iñaki Baleztena Agerralde eta **Idoia Arregi Aziproz**, Donamariakoak, apirilaren 24an.

Andrew Peter McCulloch eta **Miren Gurutze Mendia Aranguren**, Coventy-koa (Erresuma Batua) eta Urretxukoa, apirilaren 7an, Etxalarren.



SORTZEAK

Julen Pikabea Oiartzabal, Doneztebekoa, martxoaren 24an.

Alain Perez Criado, Goizuetakoa, apirilaren 19an.

Ander Altzu Bidart, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 2an.

Gaizka Biela Mena, Iruritakoa, apirilaren 6an.

Beñat Biela Mena, Iruritakoa, apirilaren 6an.

Unai Olaizola Goñi, Elizondokoa, apirilaren 10ean.

Unax Elizaintzin Irungarai, Gartzaingoa, apirilaren 15ean.

Iker Oteiza Altzuguren, Elizondokoa, apirilaren 19an.

Ekiñe Mitxelena Lasaga, Berakoa, apirilaren 1ean.

Nerea Iparragirre Igoa, Berakoa, apirilaren 15ean.

Uxune Otxoteko Telletxea, Berakoa, apirilaren 19an.

HERIOTZAK

Trinidad Lazkano Larunbe, Arizkungoa, apirilaren 7an, 89 urte.

Antonio Garcia Elorz Diaz, Iruritan, apirilaren 16an, 46 urte.

Maria Josefa Agerre Agerre, Gartzaingoa, apirilaren 13an, 76 urte.

Jose Maria Santesteban Ganboa, Sunbillakoa, apirilaren 21ean, 53 urte.

Maria Carmen Urkiola Lazpiur, Oronoz-Mugairin, apirilaren 21ean, 92 urte.

Emiliana Franzesena Igoa, Gartzaingoa, apirilaren 24an, 84 urte.

Fulgencia Aranburu Iturritza, Berakoa, apirilaren 8an, 98 urte.

Rosa Eraso Aizagirre, Aresokoa, apirilaren 7an, 81 urte.

Jose Antonio Goikoetxea Almandoz, Berakoa, apirilaren 8an, 68 urte.

Catalina Olano Billabona, Leitzakoa, apirilaren 11n, 89 urte.

Rosario Iriarte Aziproz, Iturengoa, apirilaren 12an, 84 urte.

Salvador Perez Iriarte, Berakoa, apirilaren 12an, 66 urte.

Sabino Goienetxe Etxeberria, Igantzikoa, apirilaren 3an, 56 urte.

Blasa Petrikorena Vera, Doneztebekoa, apirilaren 14an, 88 urte.

Jose Antonio Zapirain Garbisu, Berakoa, apirilaren 16an, 61 urte.

Juliana Otxandorena Elizalde, Donamariakoa, apirilaren 16an, 81 urte.

Jose Vayá Prats, Donamarian, apirilaren 18an, 88 urte.

Eustasio Retegi Telletxea, Igantzikoa, apirilaren 18an, 88 urte.

Jose Luis Iparragirre Zubieta, Etxalar-koa, apirilaren 22an, 57 urte.



Alfredo LARQUÉ LECHA

2004ko apirilaren 18an hil zen
Parisen, 80 urte zituela.

*Bizitzan zehar urrun egon arren
Zerua gure bihotzetan sentitzean
Orain zaitugu hurbilen.
Maite zaitugu.*

ZURE SENDIA.



Julian ORDOKI ETXEBERRIA

Lesakan hil zen 2004ko martxoaren
28an, 82 urte zituenean

*Hartu ditugun dolumin adierazpenak
eta gure aita eta senarraren alde
eskeini dituzuen otoitzak
eskertzen dizkizuegu.*

Bere familia.



Eustasio RETEGI TELLETXEA
ARGATA-GARIAIA BASERRIA

Igantzin hil zen 2004ko
apirilaren 18an, 88 urte zituela

*Hartu ditugun dolumin adierazpenak
eskertzen dizkizuegu.*

Bere familia.

HERRI KIROLA

Herri kirolaren munduak Migel Angel Etxarte «Kaxot» igantziarra omendu zuen

Euskal Herriko berrogeita hamar kirolari bildu ziren bere sorterrian apirilaren 25ean

A.A.

Igantzikoko Udaberriko kultur egunak akitzeko, apirilaren 25ean Migel Angel Etxarte Kaxot zenari omenaldia eskaini zitzaion. Herri kirol munduan aski ezaguna zen Kaxot eta horregatik, herri kirol jaialdi haundia prestatu zen, 50 kirolari baino gehiago aritu baitziren lanean. Arpanlariak, koxkor biltzaileak, korrikalariak, harrija-sotzaileak, lasto altxatzaileak, ingude altxatzaileak, lasto botatzaileak, aizkora altueran eta bertze kirol ugari ikusteko modua izan zen.

Lehenik kirolari eta epaileen aurkezpena egin zen eta lehen proban, bi bikote aritu ziren koxkor biltzen eta lasterka. Iker Lizarraga eta Fernando Etxegarai beratarra alde batetik eta Josu Jimenez eta Jaime Etxegarai bertzetik aritu ziren. Bikote kide batek 25 koxkor paratu, bertzeak bildu eta gero hamar itzuli lasterka egin zituzten, kirolari bakoitzak borts itzuli eginez. Bertze probatan bezalaxe, guttienekoa irabaztea izan zen atzokoan.

Ondotik etorri zen probaikusgarrietakoa bat, 28 arpanlari batera aritu baitziren. Bikote bakoitzak hamar korte eman behar zizkion enborrari. Hemen, Irazola eta Lapazaran bizkaitarrak, Gerendiango Pikabea anaiak, Iraizoz-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Hainbat jende hurbildu zen Kaxot zenari omenaldia egitera. Kirolarien artean, hainbat arpanlari eta Igantzikoko lasto altxatzaileak izan ziren.

ko Barberena anaiak, Etxauri aranako Oderiz eta Oteiza, Berriozarko Aizkorbe eta Goldarazena, Berriozarko Goldarazena eta Mariñelarena, Joxe Gabirondo eta Aitor Esnaola gipuzkoarrak, Arostegiko Kañamares anaiak, Berriozarko Julen Kañamares eta Mikel Uhar-te, Garraldako Mandarzen eta Fran Juanpe-rez, Garraldako Pedro-

arena eta Beltzuntze, Arraiozko Telletxea eta Andoni Irigoien, Igantzikoko Iñigo Telletxea eta Oskar Telletxea eta Igantzikoko Xabi Sein eta Iñaki Bereau aritu ziren.

Hurrengo saioan, harrija-sotzaileak aritu ziren, 109 kiloko Erreka harri irregular eta zailarekin txanda librean, borts minutuko tartean. Beintza-Labaiengo Josetxo Urrutia, Arraioz-

ko Patxi Larretxea eta Azpirozko Mikel Lasar-te aritu ziren.

Ondoren, berriz ere arpanlariak aritu ziren abiaduran, kanporaketa probak egiten. Lasto altxatzaileak aritu ziren ondotik, minutu bateko txandatan. Urruñako Arbanoitz, Lapazaran eta Tubi bizkaitarrak, Joxe Mari Atutxa, Inaxio Goio-aga, Patxi Ituarte eta Iñaki Bereau igantziarra aritu ziren.

Hainbertze kirolen artean, Kaxoti omenaldia egin zitzaion eta oroi-garriak, loreak eta aureskua eskaini zizkieten bere senideei. Igantzikoko herri kirol taldeko taldekideak izan zituen Iñaki Bereauk eta Eduardo Eugik lore sorta eta koadroa eman zizkieten, Arantxa Ariztegi Nafarroako Herri Kirol Federazioko idazkariak oroi-garria eta Arraiozko herri kirol taldeak taldekide izan zuen Angel Telletxeak ere irudi bat

eman zien familiakoei eta Iruglas enpresako Agustin Sainzek kristal apaindua eman zien.

Berriz ere kirol ekitaldira itzuliz, Legasan sortu eta Maulen bizi den Joxe Bikondoak buruz beheiti aizkoran egin zuen eta Donato Larretxeak, aizkora modu tradizionalen erakustaldia egin zuen.

Ondoren lasto botatzaileen txanda izan zen eta Lapazaran, Tubi eta Ander Arbenoitz zeinek gehien bota aritu ziren. Kañamares anaiak aitzurrekin egur mozten aritu ziren eta gero ingude proba izan zen. Minutu bakarrean zeinek altxaldi gehiago eman aritu ziren Karlos Sein igantziarra, Inaxio Goio-aga bizkaitarra, Garraldako Josetxo Iriarte, Ibon Irazola bizkaitarra, Markinako Joxe Lapazaran, Beintza-Labaiengo Josetxo Urrutia eta Igantzikoko Xabi Sein.

Azkenik, Igantzikoko lasto altxatzaileen txanda izan zen: Joseba Urbistondo, Iban Txoperena, Eduardo Eugi, Manuel Telletxea, Oskar Telletxea, Karlos Sein, Xabi Sein eta Iñaki Bereau aritu ziren lanean.

Akautzeko, kirolari eta epaileei oroi-garriak eman zitzaizkien. Epaile lanetan Jon Aizkorbe, Joxe Urroz, Angel Telletxea, Koldo Martinekoren, Gora Urroz eta Oskar Barberena aritu ziren.

FUTBOLA

Euskal futbolaren lehen campusa Lesakan egingen da abuztuan

8-12 urte bitarteko ehun eta hogeitaz hurrek astebeteko bi txandatan

A.A.

Futbolaren praktikarako beharrezkoak diren konpetentziak eta gaitasunak garatu eta zortzi eta hamabi urte bitarteko neska eta mutilen artean euskararen erabilpena bultzatzeko asmoarekin lehendabiziko aldiz Euskal futbol campusa antolatu du Lesakako Beti Gazte elkarteak, Nafarroako Rural Kutxaren En Marcha programaren eta Diario de Noticias egunkariaren babesarekin eta Lesakako Udalaren eta eragin.com erakundearen laguntzarekin.

Astebeteko bi txanda egingen dira abuztuan, lehendabizikoa abuztuaren 8tik 14ra eta bigarrena abuztuaren 15etik 21era. Bi txandatan egitaraua berdintsa izanen dute. Igan de arratsaldean ongi etorria egingen zaie parte hartzaileei. Astelehentik larunbatera, goizez futbola izanen dute egunero eta arratsalde guzietan ekitaldi ezberdinak egingen dituzte: aslelehenean euskal pilota jokalaria profesionalekin; astearte eta ortzegunean Bortzirietan barna txangoa naturan; asteazkenean ginkana Lesakan; ortziralean herri kirolak Beti Gazte elkartearen eskutik eta larunbat arratsaldean bukaera ekitaldia. Gauez, berri, talde lanak egingen dituzte.

Campus honetan ira-



ARTXIBOKOA

Beti Gazteko sei jokalarik campuseko txanda bakoitzean doan parte hartzeko eskubidea izanen dute.

kasle lanetan monitore kualifikatuak arituko dira, jarduera fisiko eta kirol zientzian lizentziatuak, Heziketa Fisikoko Magisteritzan Diplomatutak eta entrenatzaile nazionalak, guziak ere futbolearen esperientzia zabala dutenak. Txanda bakoitzean 60 haur onartuko dira, 50 manteno osoarekin, hau da, gosaria, futbola, bazkaria, jarduera osagarriak, afaria eta lotarako tokia eskainiko zaienak. Hauek ordaindu behar duen prezioa 256 eurokoa da eta Rural Kutxako En Marcha kontuaren titularrentzat 236 eurokoa. Lesaka eta inguruko herrietako ha-

mar hurrei mantenu erdian izen emateko aukera eskainiko zaie, hau da, futbola, bazkaria eta jarduera osagarriak. Hauek 174 euro ordaindu beharko dute, Rural Kutxako En Marcha kontuaren titularrek 160 euro eta Beti Gazteko sei jokalarik doan parte hartzeko eskubidea izanen dute. Zerbitzu horietaz gain, partehartzaile guziekin istripu aseguruak, giza-aradura aseguruak eta Euskal Futbol Campus kamiseta izanen dute.

Izen emateko eman beharreko pausuak honako hauek dira: maiatzaren 10a baino lehen prezioaren erdia or-

daintzea Rural Kutxaren 3008 0001 12 1273606317 kontu zenbakian, kontzeptuan Euskal Futbol Campus jarriz eta agindu-emaitan hauraren izena jarriz. Izen emateko txostena bete behar da ondorengo eta txostena eta ordainketaren ziurtagiria bidali honako helbidera: Posta-kutxatila 88; 31080 IRUÑEA.

Ekainaren 10a baino lehen prezioaren berte %50aren ordainketa egin beharko da eta ordainketa ziurtagiria igorri arestiko helbidera.

Informazio gehiago www.euskalfutbolcampus.net internet helbidean topatuko duzue.

HERRI KIROLA

Iparraldeko Joku Torneoan izen emateko deialdia

Aurtengoan ere Nafarroako Herri Kirol Federazioak Iparraldeko Joku Torneo antolatu du. Mutilen arteko koxkor biltzeak izan ezik, Torneoak ez du loturarik edukiko Nafarroako Iparraldeko Joku txapelketarekin. Mutilen arteko koxkor biltze modalitatean sailkatzen diren lehenbiziko bost kirolariak Nafarroako koxkor biltze txapelketarako txartela lortuko dute.

Torneoa ekaina bukeran jokatuko da, liga sistema erabiliz hiru jardunalditan: ekainaren 12 edo 13an Etxaurin, ekainaren 19an Orkoien eta ekainaren 26an Saldiasen.

Neska eta mutilen koxkor biltzea (50 koxkor bildu), neska eta mutilen ingude altxatzea (9 eta 18 kiloko ingudeekin), neska eta mutilen txingak (22 eta 40 kiloko txingekin), harrijasotzea (100 kiloko bola minutu batean, 11'25 kiloko kubikoa minutu batean eta 125 kiloko zilindroa minutu batean), lasto altxatzea bikoteka, orga jokoa eta zakulariak, neska nahiz mutikoen hirukoteka arituko dira txapelketa honetan.

Torneoko modalitatearen batean parte hartu nahi duen guziak Nafarroako Herri Kirol Federaziora deitu beharko du, 948 450900 telefonora, maiatzaren 7a baino lehen.

AGENDA egunez egun

ERAKUSKETAK

DONEZTEBE

Maiatzaren 3tik 7ra «Liburu bat egiten» erakusketa zabalik erakusketa aretoan (liburutegi ondoan). 9:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 19:30etara.

ELIZONDO

Maiatzaren 14a arte margo tailerreko ikasleen lanen erakusketa Arizkunenean.

EMANALDIAK

LESAKA

Maiatzaren 8an «1937, gogoaren bidezidorretatik» ikuskizuna eskainiko dute Kukai dantza taldeak eta Ttamtaka antzerki taldeak.

MUSIKA

LESAKA

Maiatzaren 16an II. Akordeoi Topaketa, Doneztebe, Elizondo eta Lesakako taldeekin. 11:00etan kalejira eta 12:00etan jubilatuen arkupetan kontzertua. **Maiatzaren 8an** Juan Mari Beltranen kontzertua.

DANTZAK

BERA

Maiatzaren 15ean Escena dantza jaialdiaren barnean Joaquin Grilo flamenko dantzaria 20:00etan Kultur Etxean.

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Maiatzaren 16an Ekaitzara joanen da Illurdi mendi taldea.

BAZTAN

Maiatzaren 16an Belatera ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

ZUGARRAMURDI

Maiatzaren 16an Errotak ibilaldia eginen du Atxuria mendi taldeak.

TELEBISTAKO TXOKOA



HERRI URRATS BISITAZERA

Igandean Senperen izanen da ttipi-ttapa telebista

Senpere euskaltzaleen hiri nagusia bilakatuko da egun batez, hogeita batgarren Herri Urratsa haundizki ospatuko baita maiatzaren 9an, igande honetan. Azkeneko urteetako ohitura eta lanari eutsiz, ttipi-ttapa telebistako kamarak Senperereko aitziraren inguruan ibiliko dira, bertako giroa bildu asmoz eta euskararen eta Iparraldeko ikastolen aldeko bestan parte hartzen dutenen iritziak bilduz.

Xede haundiak dituelakotz, usaian baino jende gehiago bildu nahi du Seaskak. Aurtengo irabaziekin bi kolegio altxatuko dituzte Ziburun eta Baxe-Nafarroan. Aurten, besta-gune berri bat estrenatuko da.

Aintziraren inguruan ez da deus falta izanen gonbidatu aunitz hurbilduko baita, hauen artean Fermin Muguruza, Brasilgo Renata Rosa, Tapia eta Leturia, Elektrotuna, Zipotzero eta Otsoak, bertzeak bertze. Musikariaren doinuak eta entzuleen dantzak grabatzen eta zuei eskaintzen ere saiatuko da ttipi-ttapa telebista.

KULTUR EKITALDIAK

Maiatzean bertze hainbat ekitaldi eginen dira. Lesakan, erraterako, bigarren akordeoi topaketa eginen da, Doneztebe, Elizondo eta Lesakako taldeekin eta ttipi-ttapa telebistan izanen duzue horren berri.

DISKAK



«Rompeme con mil caricias, cielo»

Doctor Deseo

GOR, 2004

Ekoiaren garbi eta naturalagoan bilduta dator Doctor Deseoren lan berria. Kantuen aniztasuna azpimarratuko genduzko edozeren gainetik, betiere disko osoaren koherentziarekin kontraerrian jarri gabe. Zuzenean kantua muinera joan da taldea, pop klasiakoaren ildotik, baina rock printzak eta jazz ukituak gehituz. Disko honekin kitarra zainduenganako interesa berreskuratu du taldeak, emozioei lehentasuna emanaz. «Rompeme...» honek hamar kanta dakartza, hamar pintzelada berezko, Francisek ohi duen moduan. Tartean bi bertsio: «Ez nauzu izango berriz» batetik, Joy Division-en kanta libreki euskaratua. Bigarrena, berriz, Francisena da, «De nuevo en tus brazos», joan den urtean Bilboko Konpartsen omenaz egin dikoan Rober, Uoho eta Fitorekin batera abestu zuena.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Martxoaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 39,50 € (-1,00 €)

Zerri gizona
1,070 € kilo. (=)

Zerramak:
0,500 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3, 10 (-0,03)

1.koa 2,95 (-0,03)

2.koa 2,82 (-0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,15 (-0,03)

1.koa 3,02 (-0,03)

2.koa 2,89 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 250,00 (=)

idixkoak 260,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 192,00 (=)

idixkoak 220,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,90/2,96

Zaldi-behorrak: 1,70/1,90

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,70/ 6,00

8-10 kilokoak: 4,45 / 4,95

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Ikusmena eta gidatzea

Zenbait ikerketek ikusmen defizitak eta istripua izateko arriskua lotzen dituzte. Ikusmen zorrotzasun estatiko edota dinamikoan akatsak eta ikusmen eremuan mugapenak, adibidez, somatzen dira auniztan istripua izan duten gidarietan.

Argi guttiko baldintzetan, gidari aunitzek argi sentsibilitate eskasiarekin lotutako ikusmen gabeziak agertzen dituzte eta horrek arriskua izateko aukera haunditzen du.

Ikusmen ahalmen guztiak, gidatzea bezalako baldintza dinamikoetan, mugatik hurbil daude eta batzuetan muga hori gainditzen ahal dute. Ikusmen zorrotzasuna, ikusmen eremua bezalaxe, abiadura-ekin murrizten da. Mugimenduan dagoen inguru bateko ikusmen estimuluak modu eraginkorrean hartu, prozesatu eta erantzuteko ahalmena ere murrizten da. Honek,



Gidariak jasotzen duen informazioaren %90 ikusmenaren bidez hartzen du.

batez ere, oinezkoari eragiten dio.

ADINEKO JENDEA GIDATZEN

Bide segurtasunean, adineko jendearen arriskua haundiagoa da, gidariengan nahiz oinezkoen gain. Arreta, erreakzio azkartasuna edo argiari sentsibilitatea guttitzeaz gain, adineko jendeak zenbait eritasun

izan ditzake (glaukoma, kataratak...), baldintza kaxkarretan (behelainoa, eurria, argi gutti...) edo nekearekin gidatuz gero istripua izateko arriskua haunditzen dutenak.

AURRIKUSPENA

Ikusmenean izaten ahal diren aldaketak, noizean behin espezialistak egindako ikusmen azterketek

bakarrik aurreikusi eta tratatzen ahal dute. Ez bakarrik begibistakoak suertatzen direnak, ikusmen zorrotzasunaren galera adibidez, baita somatzeko zailagoak diren gaitasunen galerak, baina berdin-berdin garrantzitsuak direnak eroso eta guzientzako modu seguruan gidatzerako orduan. Ibilgailuak gidatzea hagituz prozesu zaila da, ahalmen fisiko eta mentalak frogatzen dituen. Batzuetan automatikoki egiten ahal bada ere, modu seguruan gidatzeak arreta, buruko prozesamendua eta erantzun integratuko sistema eskatzen du. Sistema honetan ikusmen informazioa nagusi eta beraz, oinarritzakoa da. Gidariak jasotzen duen informazioaren %90a ikusmenaren bidez hartzen du. Beraz: Ikusmen ona = Trafikoan segurtasuna.

Argibel Optika
Elizondo - Doneztebe

Arreta, erreakzio azkartasun, edo argiari sentsibilitate guttiago izaten du adineko jendeak istripua izateko arriskua haundituz.

LIBURUAK



Han goitik itsasoa ikusten da

Julen GABIRIA

ELKAR, 2004

Han goitik itsasoa ikusten da, Euskal Herrian gerra aurreko urteetan hasi baina II. Mundu Gerra bitarteko Italian gertatzen da, eta bizikleta da bi mutur geografiko horiek lotzen dituen aitzakia: Roman Alberdi mutikoak Euskal Herriko itzulia ikusiko du lehenengoz Gino Bartali karrerista handia; erbestera bidalitako umea dela Frantziako Tourrean topatuko du hurrena, Alpeetako mendi bat igotzen biak, eta haren bila joango da geroago, Tos-

kanako Ponte a Ema herrira. Txirrindulari-kontuez gainera beste gai eta pertsonaia asko aterako zaizkigu bidera ordea: film amerikarrak ezkutuan ematen dituen zinemazalea, txoriak ebanjelizatzen dituen fraidea, lehorrean geratutako marinel portugesa, egunero oigiren batean gerezia sartzen duen okina, judua dela ezkutatu behar duen neskatxa esne-saltzailea... Guztiak ere Toskanako giro lasai, sensual eta bizizale horretan blaituak.

OSPAKIZUNAK

SEMPERE

Maiatzaren 9an Herri Urrats.

ANTZERKIA

LESAKA

Maiatzaren 15ean «Zirikqa Zirkus» taldeak antzerki emanaldia eskainiko du Kasinon 17:00etan. Hori akaututakoan zirko tailerra eginen da. Arrano Elkarteak Nafarroako Gobernuaren Arte eta Kultura egitarauaren barnean antolatua.

BERA

Maiatzaren 6 eta 7an eta 20 eta 21ean Mugaz Gain Antzerki jaialdia Kultur Etxean.

KONTZERTUAK

IGANTZI

Maiatzaren 8an meza ondotik elizan kontzertua eskainiko du Giltzarri Abesbatzak
Maiatzaren 16an Ardanbera fanfarrearen emanaldia 12:00etan frontoian.

LESAKA

Maiatzaren 13an 19:00etan piano eta flauta kontzertua Herriko Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Maiatzaren 3tik 9ra

Bera (A. Fernandez), Etxalar, Doneztebe (J. A. Mendia), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (M.I. Larraia).

Maiatzaren 10etik 16ra

Bera (M.J. Sanz), Sunbilla, Elizondo (F. Garcia Mata), Leitza (M.T. Plaza).

Maiatzaren 17tik 23ra

Lesaka (O. Altzate), Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga), Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak






☎ 948 637281 (denda orduetan)

LESAKA

Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai

- Garajea, beheetiko solairua 51 m² erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m² erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m² erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua. - 1.500 m²ko lur eremua inguruan.



UKULU PROMOZIOAK, S.L.

**Urbanizatutako Lur Sailen
Salmenta 500 m²
Sunbillan, Nafarroako Iparraldeko
Natur Ereku preziatuan, mendiari
begira. SUNBILLA. Irundik 20
minutura eta Iruñatik 30 minutura.**

Tel.: 948 451 596/ 667 424 635

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

Egurrezko etxebizitzak erakitzen dira prezio onean. ☎ 649 792399.

BORTZIRIAK. Etxe, borda, baserria edo lur eremua erosi nahi da. Urgentea. Edo zein preziotan. ☎ 610613157.

ERRATZU. Pisua salgai. 98 m²koa eta mobleztua, bibalkoi eta bista politekin. ☎ 678 209907.

URDAZUBI. Baserria salgai. Hiru solairukoa, lur eremua eta eraikuntza berriko 50 m²ko apartamendua. ☎ 948 599313 - 605 904291.

BAZTAN
Borda salgai 5.000 metroko lur eremuarekin.

☎ 650 2955477 (Jose Mari)

BAZTAN. Apartamentu berria salgai, estrenatu gabe dago. Aukera ona. ☎ 628 557723.

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

BERA-LESAKA-ETXALAR
Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 687 039889.

ADOS

- **BERA-LESAKA.**
-Pisu pare bat salgai.
 - **DONEZTEBE.**
- Santa Luzia plazan lokal komertzialak salgai.
 - **ELIZONDO.** - Pisuak eta terrenoak erosten dira.
 - **BORTZIRIAK.** - Terrenoak eta baserriak erosi nahi dira.
- BAZTAN-BIDASOAN:** Baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai. Terreno eraikigarriak salgai. Aukera zabala.
948 451 841 / 607 978 656

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

LESAKA. Bulegorakoprestatutako lokala errentan ematen da. ☎ 690 396252.

ELIZONDO. Pisua errentan eman nahi da, mobleztatua, Braulio Iriarte karrikan. ☎ 676 707620.

LESAKA. Albistur karrikan lur azpiko garajea errentan ematen da. ☎ 686 759341 (eguerdi edo arratsetan).

LURRAK/ORUBEAK 113 Erosi

IGANTZI-LESAKA. Terrenoa erosiko nuke. ☎ 690 621836.

LANA

301 Eskariak

Emakumea eskaintzen da lan egiteko eskualdean (portalak garbitzen, jatetxeetan fregatzen...). ☎ 948 451746 (8:00etatik 15:00etara).

Emakume batek lan eginen luke Beran, haurrak edo adinekoak zaintzen, ostatuan... ☎ 687 039889.

Emakume euskaldun batek lan eginen luke udan landetxe, jatetxe edo etxe bat garbitzen edo plantxa egiten. ☎ 948 185883.

LANA 302 Eskaintzak

DONEZTEBE. Haur bat zaintzeko neska behar da. ☎ 616 325278.

LEITZA. Enpresa batek tailerrek arduraduna behar du. Informazio gehiago: ☎ 619 829289.

BERA. Ansonea jatetxean zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. Esperientzia izatea ez da derrigorrezkoa. Ikasteko go-goarekin. ☎ 948 631155.

Lan bila zabilta?

LAN ESKAINTZA

GIDARIAK

Nafarroako Gobernu eta
Burlatako Udaletxean
13 lanpostu libre.

BIGARREN HEZKUNTZA HAUR HEZKUNTZA

Bigarren Hezkuntzan
Lanbide Heziketan
176 lanpostu libre.

LAN ESKAINTZA

LORAZAINAK KONTSERJEAK MANTENIMENDUA

Herriko Etxe eta
Nafarroako Gobernuzko
plaza libreak

BASO LANGILE eta OIHANZAINAK

Nafarroako Gobernuan
9 lanpostu libre.
Eskola Graduatua aski

Presta zaituz. Informazioa doan.

948 199 596

ARRIETA

erludenda eta bitxidenda

Erretiroa dela eta likidazio osoa

Tel: 948 580445 • ELIZONDO

Tornatzaile eta fresatzai-

le lanetan aritzeko pertso-
na behar da. ☎ 619 829289.

Iturgintzan esperientzia
duen langile bat behar da
Berako enpresa batean lan
egiteko. ☎ 630 441315.

Emakumea behar da sus-
tituzioak egiteko eta uztail
eta abuztuko bigarren ha-
mabostaldian garbiketa la-
nak egiteko. ☎ 948 635000
(Etxalarko Benta Hotela).

Erromeri talde batean jo-
tzeko bajista behar dugu.
☎ 661 539702.

BERA. Ostatu batean ta-
bernaria behar da. Infor-
mazioa: ☎ 619 829289.

Gidaria. Nafarroako Go-
bernurako eta Burlatako Uda-
letxerako 13 lanpostu. Infor-
mazioa doan. ☎ 948 199596.

Zaindariak. Museo, artxibo
eta erakunde publikoetan.
Informazioa doan. ☎ 948
199596.

Ezinduak. %33 edo gehia-
goko ezintasuna baldin ba-
duzu, Nafarroako Gobernuan
eta udaletxetan lana lortze-
ko aukera. Informazioa do-

an. ☎ 948 199596.

Zelaria. Osasunbideak 43
lanposturako deia, 5 ezin-
duentzat. Izen ematea ire-
kia. Informazioa doan. ☎ 948
199596.

Harreragile-telefonista. Na-
farroako Gobernurako eta
Udaletxetarako lanpostuak.
Eskola Graduatua. Informa-
zioa doan. ☎ 948 199596.

Laborategia. Nafarroako
Gobernuan laguntzaile eta
teknikoentzat 16 plaza libre.
Informazioa doan. ☎ 948
199596.

Bigarren Hezkuntza eta
Haur Hezkuntza. 176 plaza
libre. BH eta LH. Informazioa
doan. ☎ 948 199596.

**Baso langile eta basozai-
na.** Nafarroako Gobernuan
9 plaza libre. Eskola Gra-
duatua. Informazioa doan. ☎
948 199596.

**Lorezain, atezain, manteni-
mendua, udaletxe eta Nafa-
rroako Gobernurako langileak.**
Laster Arbizu, Burlata, Li-
zarra, Zangotza, Kastejon
eta Milagron. Informazioa do-
an. ☎ 948 199596.

Udaberri honetan,
irudiz beteko zara!



26" TFT-LCD telebista
- Pantaila leku panoramiko (16:9)
- 10 cm ko lodiera
- Teletextua
- Urriko mangelua

1.499€
24.413 Ptas. BEE kate

Zure denda Beran
Kanttonberri, 3. T. 948 63 01 32

BEEP



IKASTAROA LEITZAN

Oinarrizko Elektrizitatea

Data: Maiatzaren 17tik ekainaren 10era,
asteleheneetik ostegunera.

Ordutegia: 16:00etik 20:00etara.
Emakumei zuzendutako ikastaroa da eta
dohainik izanen da.

Informazioa eta izena ematea maiatzaren 12 a baino
lehen 619829289 telefonoan (Oskia)

Garbiketa langileak udale-
txe eta erakunde ofizialetan.
Laster Doneztebe eta Bur-
latan. Informazioa doan. ☎
948 199596.

MOTORRA

501 Salerosketak

Citroen C3 1.100i Vivace
autoa salgai. Haize egoki-
tua. 24.000 km. 8.000 euro.
☎ 948 599177 edo 948
599079.

Peugeot 405 erabilia salgai.
Aukera ona kameta berriki
atera dutenentzat. 350 eu-
ro. ☎ 649 596523.

Citroen Evasion 1.9TD mo-
nobolumen autoa salgai,
1998 urtekoa. Extrak: CC,
EE, AA, DA. 7 eserleku. ☎
699 478028 (17:00etatik ai-
tzinera).

ANIMALIAK

601 Emateko

Euskal artzai eta husky
arrazako zakurra opari ema-
ten da. ☎ 948 581131.

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Setter zakurkumeak salgai,
lau hilabetekoak, txertatuak.
☎ 609 068520 (arratsaldez).
Untxi-kaiolak salgai. 5 eu-
rotan bakoitza. ☎ 609 068520
(arratsaldez).

Mutur gorriko bi ahari sal-
gai, bat urtebetekoa eta ber-
tzea bi urtekoa. ☎ 948
451696 (21:00etatik aitzine-
ra).

DENETARIK

701 Galdu-aurkituak

Seguritateko giltza pare
bat agertu dira Berako Itzea
karrikan, Amabirjinaren gil-
tzariarekin. ☎ 948 631271
(Lixioia).

DENETARIK

702 Salerosketak

Egongelako moblea salgai,
egoera oso onean. 300 eu-
ro. ☎ 669113835.

**Bi kalefakzio akumulado-
re** salgai. Prezio onean. ☎
948 631188.

Haurrendako 3 gurpileko
silleta saltzen da, Jané mar-
kakoa eta kapota. ☎ 948
630858 (Ana).

Eskopeta superpuesta sal-
gai, Miroku markakoa. Hiru
izar eta bat, 70; ehizikoa. Ka-
sik berria. 660 euro. ☎ 948
450700.

Gasoleozko kaldera, Tifell
markakoa erosiko nuke. ☎
667 717573 (eguerditan).

Sukaldea salgai, altzariak,
frigorifikoa, labea, gaineko
suak, garbigailua eta buta-
no-kalentadorea. Ia berria.
☎ 618 962679 (eguerdi eta
arratsetan).

DENETARIK

703 Bertzelakoak

Frantses klaseak hartuko
nituzke. ☎ 686 891568.

HARREMANAK

801 Agurrak


Gloria Zelaietari! Berako
sekretaria fidel eta leiala-
rentzat. Nere agurrik beroe-
nak, segi horrela bai! Ah! eta
zorianak ezkontzen zarela-
ko!?

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7€ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



ALEJO PORTU lesakarrak 21 urte beteko ditu maiatzaren 17-an. Zorionak lbandingo lankideen, batez ere 2 petarden partetik. Muxu bat guapeton!



MAIDER TAPIA IRIARTE beratarrak urte bat beteko du maiatzaren 4an. Zorionak pottoki!! Muxu haundi bat izeba Maite eta amatxiren partetik.



ANE ETXEPE-TELEKU eta IZEBAR ARANTXAK maiatzaren 2an eta 4an eginen dituzte urteak. Zorionak familiaren partetik.



ANE ETXEPETE-LEKU BURGETE lesakarrak maiatzaren 2an 6 urte eginen ditu. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Jonen partetik.



MIRIAN SAPUPPO GALAINEK apirilaren 22an 7 urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta familia osoaren partetik.



JULEN PALENZUELA ETXEPARE lesakarrak 7 urte bete ditu apirilaren 28an. Zorionak Aina, aita, ama eta yayaren partetik. Muxu, muxu eta muxu.



MARIA BARRENETXE azpilkuetarrak 5 urte bete ditu apirilaren 22an. Aunitz urtez Azpilkuetako eskolako partetik.



IKER ETXARTE SUNDUNDEGI igantziarrak 5 urte bete ditu maiatzaren 1ean. Zorionak familia guziren partetik.



ARITZ eta JOSEBA IRAZOKI etxalartarak 4 eta 7 urte beteko dituzte apirilaren 21ean eta maiatzaren 1ean. Mila muxu eta aunitz urtez gure bi morroskoei. Atta eta amaren partez zorionak.



ALAZNE MARIKURENA SANSINENAK urtea bete zuen apirilaren 15ean. Zorionak familiaren partetik eta batez ere Imanolen partetik.



AINARA PALENZUELA ETXEPARE lesakarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat, "trasto".



JOSEBA PETRI-RENA beratarrak 21 urte beteko ditu maiatzaren 2an. Zorionak aitaren partetik.



OIHAN CANABAL ETXARTE igantziarrak 6 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak eta musu bat familiaren partetik.



SEVE INDAKOETXEA arantzarrak urteak beteko ditu maiatzaren 16an. Muxuak bere emazte eta bi alaben partetik.



AINARA ETXEBERRIA TERREROS lesakarrak urtea bete du apirilaren 30ean. Zorionak pottolita. Amatxo, aita eta Haizea.



IZARO TORRES ALEGRIA beratarrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 9an. Zorionak aita, ama eta amatxiren partetik.



ALOÑA ETXARTE TELLETXEA lesakarrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak gitana.



MAIALEN IRIGOIEN eta ALOÑA ETXARTE lesakarrak urteak beteko dituzte maiatzaren 10ean eta 13an. Zorionak Sorginak.



OIHANA ELTZAUDIA ARIZTIA beratarrak 7 urte bete ditu apirilaren 29an. Zorionak familiaren partetik.



ARITZ IRAZOKI irundarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.



ANDONI eta AITOR LAZKANOTEGI MATXIARENA beratarrek 7 eta 4 urte beteko dituzte maiatzaren 12 eta 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat amatto, attatto eta Iratiren partetik. Aupa Erreala.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi-ttapa
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

SAMPI ARAGON ZDANSA

Volkswagen Golf IV 3 ate TDI, Seat Toledo TDI, Seat Leon TDI, Seat Ibiza 3 ate TDI, Seat Panda, Peugeot 206 3 ate HDI, Citroen Xsara 5 ate TD, Citroen Saxo batzuk, Citroen C15 Combi D, Opel Astra 5 ate DTI, Opel Corsa 3 ate DI, Mitsubishi 3 ate TD, Suzuki 5 ate TD eta bertze batzuk

© 948450354 - 948625555
DONEZTEBE - BERA

MENDAUR MOTOR

© 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Opel Tigra, Mitsubishi Pick-up, Land Rover Discovery TDS, Opel Zafira, Peugeot 206 XS, Clio Diesel, Citroen ZX Diesel, Mitsubishi Montero S-3 ate, Opel Calibra SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

PELUAGA
60. urteurrena dela eta
%20eko deskontuak
Maiatzaren 3tik 31ra

Colou Pasealekua 7 • IRUN • Tel-Fax: 943 622816



URBICAIN

zerbitzu estazioa

- Gasolindegian auto garbigailu berria
- Aspiradoreak
- Boxeak
- Alfonbrillak garbitzekoa

☎ 948 630209 (harrobiaren ondoan)
BERA



Artaleku, 3 - IRUN
Gipuzpoa etorb.
Anbulatorioaren ondoan
Tel.-Faxa: 943 63 82 23
Larunbat arratsaldetan irekia

- Pasiarako kotxe eta aulkiak
- Seaska, moises eta bainerak
- Saskitxoak eta seaskako arropa
- Haurrendako mogleak
- Autorako segurtasun-aulkiak
- Puerikultura ttikia, elikadura-tresnak eta osagarriak
- Pelutxe eta jostailu didaktikoak
- Haurrendako opariak
- Jaiotzako opari-listak



Muebles MINKA

- IRUN -

PROMOZIOAK!
terraza eta
lorategietarako
altzarietan

**Terraza eta
lorategietarako
altzariak**



- Aukerarik handiena
- Markarik hoberenak
- Material guztietan

**Rattan eta Medulazko
altzariak**



- Logelak
- Tresilloak
- Jangelak
- Altzari laguntzajileak

Larunbata
arratsaldetan
irekia

- Dekorazioa
- Alfombrak
- Lanparak
- etab

República Argentina, 1 (IRUN erdialdean, Mendibil merkataritza zentruaren ondoan) • Tfnoa: 943 62 09 82

Osasuna

osasun gida • osasun gida • osasun gida



**Ostargi
Optika**

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentillen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 2-3 urteetatik aurrera haurren errebisioa

Bidasoa 8 • BERA • Tfnoa: 948 630 753



Albiu hertz

Iker Albiu Altzagirre

Odontologia Medikua - Kat. Zha 443

Ordu eskaera

9:00 - 13:00

15:00 - 19:30

948 631 631

Iparraidea 3 - 2.ezk 31780 Bera

Clinica Dental

Irurita - Rubio

ODONTOLOGIA

ORTODONTZIA

Doneztebe 948 450 267
Rosa Seminario, 19-1 Esk.

Dr. Jose Luis Irurita (Kol.240)

Dra. Biatza Rubio (Kol.241)

odontologia medikuak

Rx.panoramikoa - periodontzia - kirurgia
endodontzia - protesiak
ODONTOPEDIATRIA - PADI
ortopedia maxilarra - umeak eta helduak

Leitza 948 610 713
Manuel Lasarte, 7-2 Esk

**FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO
ZENTROA**

**Karlos
Atzugaray**

FISIOTERAPEUTA

- Lan letrikuak
- Trafika letrikuak
- Kiral lesioak
- Gilhar, artikulazio... minak
- Bixkortze arriak
- Bertze tratamenduak
- Masajeak
- Estaze etaako laguntza.

Izua, 20 • BERA
Tfnoa: 948 63 01 87
Mugikorra: 607 85 32 08

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

Diabetes • Astma • Zizareak • Larri azaliko alergia
Buruko mina • Oinien izerdia • Prostata, etab...

**IKUSMENAREN
BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoak
- Begi lausoak-kataraktak

**GIHARRE
ARAZOAK**

- Bixkortzeak
- Artrita, emeympa
- Artrosia, Lumbalgia
- Bihurdurak, etab.

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin IRAZOKI
Fisioterapeuta

Eztegara, 24 • BERA
Parrokia, 5 • DONEZTEBE
Tfnoa: 670 471 200

Estetika

estetika gida • estetika gida

Beatriz
Estetika Zentroa
Lurrindenda

Santiago 53 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 283

Lilura
ileapaindegia

Rosa Seminario, 17
Tfnoa: 948 45 19 61
DONEZTEBE

9-13 / 15-20
lehenbizitza, 3-17

burbuila
ileapaindegia • estetika
solarium

Bittoria 1. azpie LETAÑA • Tfnoa: 948 633 004

MARIA
ILEAPAINDEGIA

Tfnoa: 948 450 922
San Migel
DONEZTEBE

Masaje eta depilazioak:
Ano 879 199 306

- Manikura • Makilaio
- Estelizien • Solarium